- Mendeko sozietatea dela kontuan hartuta, taldean sartzeko lotura identifikatzea. Batik bat, sozietate nagusiaren eta mendeko sozietatearen arteko erlazioa azalduko da, sozietate nagusiak zuzenean edo zeharka mendeko sozietatearen boto-eskubideen erdia baino gehiago ez duenean. Bereziki, arau hauen 2. artikulua 2. atalean jasotako sozietateak identifikatuko dira, eta sozietate nagusiarekiko duten lotura azalduko da.
- Garatzen dituen jarduerak.
- Kanpoan gelditzearen arrazoiak eta justifikazioa.
- Azkeneko ekitaldiko ondare garbia, kapitalari, erreserbei eta emaitzei dagozkien zenbatekoak zehaztuta.

c) Azkenik, zuzenean edo zeharka eskubideen erdia baino gehiago duten baina horien gaineko kontrolik ez duten sozietate nagusiak identifikatuko dira, eta horien gaineko kontrola ez edukitzearen arrazoiak zehaztuko dira.

## 2. SOZIESTATE ELKARTUAK ETA TALDEANIZTUNAK

Sozietate elkartuak eta taldeaniztunak identifikatzea, honako hauek aipatuta:

- Izena eta helbidea.
- Partaidetzaren zenbatekoa, kapitalaren portzentaje nominala eta taldeko sozietateen bidez edo beren izenean baina euren kontura jarduten duten pertsonen bidez eskuratutako boto-eskubideen portzentaje nominala. Bi kasuetan, partaidetzari dagokion sozietate titularra zehaztu beharko da.
- Taldeko sozietateek boto-eskubideak edukiz gero, beharrezko informazioa eskaini beharko da, aipatutako eskubideek sozietate elkartuaren edo taldeaniztunaren gainean duten eragin edo kontrola garbi azaltzeko.
- Sozietate elkartu edo taldeaniztun gisa izendatzeko baldintza.
- Egindako jarduerak.

Urteko kontu finkatuek adierazi beharreko irudi fidelerako interes garrantzitsurik ez edukitzeagatik baterakuntza-perimetrotik kanpo dauden sozietate elkartuak eta aniztunak identifikatzea, eta kanpo utzitako mendeko sozietateen kasurako 1. oharrean eskatutako informazio berdina zehaztea.

### 2.1. Sozietate taldeaniztunak

Honako hauen berri emango da:

- Baterakuntza aplikatuaren metodoa eta bere erabileraren justifikazioa.
- Kontuak baterakuntzan aplikatutakoekiko data edo ekitaldi desberdinekoak badira, sozietate taldeaniztunaren urteko kontuen ekitaldia amaitzeko data, eta data edo ekitaldi desberdinak erabiltzearen arrazoiak.
- Sozietate taldeaniztunek funtsak inbertitzaileari eskudiruko dibidenduetan, edo mailegu- edo aurrerapen-itzulketetan transferitzeko duten gaitasunaren gaineko murrizketa garrantzitsuen izaera eta hedapena.
- Arau hauen 14. artikuluan zehaztutakoaren arabera, salmentarako mantendutako sozietate taldeaniztunak identifikatzea.

### 2.2. Sozietate elkartuak

Honako hauen berri emango da:

- Sozietate inbertitzaileak parte-hartzailean, zuzenean edo zeharka, boto errealean eta potentzialen ehuneko 20a baino gutxiago edukiz gero, eta sozietate inbertitzailearen aburuz, eragina edukiz gero, eragin garrantzitsukotzat hartu ez izanaren arrazoiak.
- Sozietate inbertitzaileak parte-hartzailean, zuzenean edo zeharka, boto errealean eta potentzialen ehuneko 20a baino gutxiago edukiz gero, eta sozietate inbertitzailearen aburuz, eraginik ez edukiz gero, eragin garrantzitsukotzat hartu izanaren arrazoiak.
- Kontuak baterakuntzan aplikatutakoekiko data edo ekitaldi desberdinekoak badira, sozietate elkartuaren urteko kontuen ekitaldia amaitzeko data, eta data edo ekitaldi desberdinak erabiltzearen arrazoiak.
- Sozietate elkartuek funtsak inbertitzaileari eskudiruko dibidenduetan, edo mailegu- edo aurrerapen-itzulketetan transferitzeko duten gaitasunaren gaineko murrizketa garrantzitsuen izaera eta hedapena.
- Arau hauen 14. artikuluan zehaztutakoaren arabera, salmentarako mantendutako sozietate elkartuak identifikatzea.

## 3. URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

1. Irudi zehatza:

- a) Urteko kontu bateratuek ondarearen irudi zehatza islatzen dutela dioen, finantza-egoera eta taldearen emaitzak zehazten dituen eta eskudiruaren fluxuen egoeran gehitutako fluxuen egiazkotasuna islatzen duen aitortpen bat egin beharko da.
- b) Irudi zehatza erakusteko, kontabilitatearen arloko lege-xedapenak aplikatu ez izanaren ezohiko arrazoiak, aplikatu ez den lege-xedapena eta aurkeztutako ekitaldi bakoitzean ondarearen gainean, finantza-egoeraren gainean eta taldearen emaitzen gainean duen eragin kualitatibo eta kuantitatiboa.
- c) Irudi zehatza erakusteko lege-xedapenen aplikazioa nahikoa ez denean, informazio osagarriak ematea, memorian duten kokalekua zehaztuta.



- d) 2013ko urriaren 18ko KKAren ebazpenaren arabera, funtzionamenduan dabilen enpresaren finantza-informazioari buruzkoa aplikatzea ez dagokionean, horrelako egoeran dauden enpresek euren memoria doitu beharko diote finantza informazioaren marko orokorrari. Hala ere, eskatzen den informazioa esanguratsua ez den kasuetan, enpresok "likidatzeko" atakan daudenez, dagozkion idatz-zatiak betetzeke utziko dira.

2. Derrigorrezkoak ez diren kontabilitate-printzipio aplikatuak.

3. Ziurgabetasuna balioestearen eta zenbatestearen alde kritikoak.

- a) Berariazko ohar bakoitzean zehaztutakoaz gain, atal honetan, etorkizunari buruzko baldintza garrantzitsuen berri emango da, eta ekitaldiaren amaieran ziurgabetasunaren balioztapenari buruzko datu garrantzitsuak jakinaraziko dira; betiere, datorren ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa garrantzitsuak eragin ditzaketen arriskuekin lotutako datuak. Aktibo eta pasiboei dagokienez, beren jatorria eta amaiera-datan duten kontabilitate-balioa zehaztuko dira.
- b) Kontabilitate-balioztapenean garrantzitsuak diren eta egungo ekitaldiari edo etorkizuneko ekitaldiei eragin diezaikekeen aldaketen jatorriak eta zenbatekoak zehaztuko dira. Etorkizuneko ekitaldien gaineko balioespen bat egitea ezinezkoa denean, gertaera horren berri emango da.
- c) Zuzendaritzak gertakizun edo baldintzen gaineko ziurgabetasun garrantzitsuak daudela ikusiz gero, eta baterakuntzan sartutako sozietateen funtzionamendu egokiari eragin diezaioketela ikusten badu, atal honetan jakinaraziko du. Baterakuntzan barne hartutako sozietateren baten urteko kontuak ez badira funtzionamenduan dabilen enpresa-printzipioaren arabera eratzten, horren berri esplizitua eman beharko du, bai eta funtzionamenduan dabilen enpresatzat ez jotzeko arrazoiekin batera. Horrez gain, espresuki aipatuko da urteko kontuak eratu direla funtzionamenduan dabilen enpresaren printzipio egokia ez deneko 2013ko urriaren 18ko KKAren ebazpena aplikatuz.

4. Informazioaren konparaketa.

Kontabilitate-irizpideei eta akatsen zuzenketei buruz ondorengo ataletan adierazitakoaz gain, atal honetan, honako informazio hau gaineratuko da:

- a) Balantzearen egituraren aldaketa, galera eta mozkinen kontuaren aldaketa eta ondare garbiaren aldaketa-egoeran eta aurreko ekitaldian finkatutako eskudiruaren fluxuen egoeran aldaketak justifikatzen dituzten ezohiko arrazoiak.
- b) Ekitaldiko urteko kontu bateratuen eta aurreko ekitaldiko urteko kontu bateratuen konparaketa eragozten duten arrazoiak. Zehazki, funtzionamenduan dabilen enpresaren printzipioa aplikatzea egokia ez deneko finantza-informazioaren markoa erabiltzen den lehen ekitalditik bertatik, azaldu beharko da hura aurreko ekitaldiarekin ezin konpara daitekeela, finantza-informazioaren markoa aldatu delako.
- c) Konparaketa errazteko aurreko ekitaldiko zenbatekoak egokitzearen arrazoa, eta aurkako kasuan, konparaketa-zifrak berradieraztea ezinezko egin duten ezohiko arrazoiak.
- d) Baterakuntzaren perimetroan edo perimetro bateragarrian gertatzen diren aldaketak jakinarazi beharko dira, eta aldaketa horiek eragin dituzten sozietateen izenak eta helbideak zehaztu beharko dira. Horrez gain, aldaketek ondarean, finantza-egoeran eta talde bateratuaren emaitzetan izan dituzten ondorioak adierazi beharko dira; betiere, ekitaldi honetako datuak aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta.

5. Partidak multzokatzea.

Balantzean, galera eta mozkinen kontuan, ondare garbiaren aldaketa-egoeran edo eskudiruaren fluxu bateratuen egoeran multzokatutako partidak xehatuko dira

Desagregazio hori memoriaren beste atal batzuetan jasotzen bada, aurreko informazio hori aurkeztea ez da beharrezkoa izango.

6. Hainbat partidatan jasotako elementuak.

Balantze bateratuaren bi partidatan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementuak eta beren zenbatekoak identifikatzea eta zehaztea.

7. Aldaketak kontabilitate-irizpideetan.

Ekitaldian kontabilitate-irizpideen aldaketengatik egindako doikuntzen azalpen xehatua. Batik bat, honako informazio hau eman beharko da:

- a) Aldaketaren izaera eta deskribapena, eta aldaketak informazio fidagarriagoa eta garrantzitsuagoa ahalbidetzearen arrazoa.
- b) Urteko kontu bateratuetan integratutako dokumentuei dagozkien eta konparaketetarako aurkeztutako ekitaldiei eragiten dieten partiden zuzenketaren zenbatekoa.



- c) Atzeraeraginezko aplikazioa posible ez bada, horren berri emango da, egoera azalduko da eta kontabilitate-irizpidean aldaketa noiztik aplikatzen den zehaztuko da.

Irizpide-aldaketa arau berri baten aplikazioari badagokio, bertan jasotakoa adierazi eta beteko da, eta horrek etorkizuneko ekitaldietan izango duen eragina zehaztuko da.

Atal honetan, ez da beharrezkoa izango konparaziozko informazioa gaineratzea.

#### 8. Akatsen zuzenketa.

Aurreko ekitaldiko akatsen zuzenketagatik egindako doikuntzen azalpen xehatua. Batik bat, honako informazio hau eman beharko da:

- a) Akatsaren izaera eta zein ekitalditan egin den.
- b) Urteko kontu bateratuetan integratutako dokumentuei dagozkien eta konparaketetarako aurkeztutako ekitaldiei eragiten dieten partiden zuzenketaren zenbatekoa.
- c) Atzeraeraginezko aplikazioa posible ez bada, horren berri emango da, egoera azalduko da eta akatsa noiz zuzendu den zehaztuko da.

Atal honetan, ez da beharrezkoa izango konparaziozko informazioa gaineratzea.

#### 9. Baterakuntzaren perimetroko sozietateen arteko eragiketak.

Baterakuntzaren perimetroko sozietateen artean egiten diren eragiketa garrantzitsuen berri emango da, horietako baten ekitaldiaren amaiera-dataren eta kontu bateratuen amaiera-dataren artean hiru hilabete baino gehiagoko desberdintasunik ez dagoenean.

Arau hauen 16. artikulua 2. atalean jasotakoaren arabera, baterakuntza dela-eta, eragiketa horiek doikuntza bat eragingo dute aipatutako sozietateen urteko kontuetan.

10. Sozietateen likidazioetan, likidazioaren beraren nondik norakoen berri emango da, eta likidazio-baliorik onena kalkulatu da, argibide hori esanguratsua denean, hartara urteko kontuek finantza-egoeraren, enpresa-emaizten eta ondarearen irudi leiala erakuts dezaten, eta fidagarritasun-maila egokiarekin lortzen ahal izateko gehiegizko gastuetan sartu gabe.

### 4. ERREGISTRO-ARAUAK ETA BALIOZTAPENA

Honako partida hauen gainean aplikatutako kontabilitate-irizpideak zehaztuko dira:

1. Baterakuntzaren perimetroan barne hartutako sozietateen banakako kontuetako partiden homogeneizazioa, horretarako aplikatutako irizpideak zehaztuta.
2. Baterakuntzaren merkataritza-funtsa eta diferentzia negatiboa; inbertsioa/ondare garbia ezabatzeko eta baterakuntzaren merkataritza-funtsaren narriadura kalkulatzeko aplikatutako irizpideak zehaztuta.  

Batik bat, baterakuntzan integratutako mendeko sozietateen aktibo eta pasiboak hautemateko eta balioesteko erabilitako irizpideen berri emango da.
3. Baterakuntzaren perimetroan sartutako sozietateen arteko transakzioak; talde barneko partidak ezabatzeko eta barne-eragiketengatik emaitzak ezabatzeko aplikatutako irizpideak zehaztuta.
4. Ibilgetu ukiezina; narriaduragatik egindako kapitalizazio edo aktibazioak, amortizazioak eta balioztatze-zuzenketak zehaztuta.  

Bereziki, kontabilizatutako merkataritza-funtsa kalkulatzeko eta narriatzeko erabilitako irizpidea zehaztu beharko da, kontsolidazioan barne hartutako sozietate bakoitzaren urteko kontuak kontuan hartuta.
5. Ibilgetu materiala, honako hauetarako erabilitako irizpideak zehaztuta: amortizazioa, narriaduragatik balioztatze-zuzenketa eta itzultzea, finantza-gastuen kapitalizazioa, handitze-gastuak, modernizazioa eta hobekuntzak, desegite- edo erretiro-kostuak, aktiboaren finkapen-lekuaren birgaitze kostuak eta taldeak ibilgeturako egindako lanen kostua zehazteko irizpideak.
6. Lursailak eta eraikuntzak kalifikatzeko eta ondasun higiezinak inbertsioetarako irizpideak zehaztuko dira, eta horretarako, aurreko atalean zehaztutako irizpideak erabiliko dira.
7. Errentamenduak; finantza-errentamenduen kontratuak eta antzeko eragiketen kontratuak kontabilizatutako irizpideak zehaztuta.
8. Trukeak; erabilitako irizpideak zehaztuta eta beren erabilera justifikatuta, eta batik bat, merkataritza-truketzat hartzeko arrazoiak zehaztuta.
9. Eginiko balio-eguneraketetan erabilitako irizpideak, eragina jasandako ondare-elementuak adieraziz.

10. Finantza-tresnak; honako hauek zehaztuko dira:
- a) Finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen kategoriak kalifikatzeko eta balioesteko erabilitako irizpideak, eta aldaketa garrantzitsuak aitortzeko erabilitako irizpideak; batik bat, erabilitako tresna juridikoaren arabera, hasiera batean ondare-tresnatzat hartu beharko liratekeen baina finantza-pasibo gisa kontabilizatu diren baterakuntza-perimetrotako sozietateek jaulkitako balioak.
  - b) Arrazoizko balio gisa eta galera eta mozkinen kontuan aldaketekin, hasiera batean esleitutako finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen izaera, esleipen horretan aplikatutako irizpideak eta finantza-tresnen erregistro eta balioztapenerako eskatutakoak nola bete dituen jasotzen duen azalpena.
  - c) Narriaduraren ebidentzia objektiboa zehazteko irizpideak, balioaren zuzenketaren eta bere itzultzearen erregistroa, eta narriatutako finantza-aktiboen behin betiko baja. Batik bat, balioztatze-zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak nabarmenduko dira, hain zuzen, merkataritza-zordunei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei dagozkienak. Era berean, iraungiak edo narriatuak ez izateko baldintzak birnegoziatu dituzten finantza-aktiboei aplikatutako kontabilitate irizpideak adieraziko dira.
  - d) Finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen baja erregistratzeko erabilitako irizpideak.
  - e) Finantza-tresna hibridoak; tresnak banan-banan balioztatze erabilitako irizpideak zehaztuta, hau da, zein ezaugarritan eta arrisku ekonomikoetan oinarrituta balioztatu diren zehaztuta, edo bereizketarik egin ahal ezin izan bada, ezintasunaren arrazoiak adierazita. Horrez gain, balioztatze-irizpideak xehatuko dira, eta bereziki, narriaduragatiko balioztatze-zuzenketak.
  - f) Finantza-tresna konposatuak; finantza-pasibo gisa izendatu beharreko tresnen osagaia kuantifikatzeko erabilitako balioztatze-irizpidea adierazi beharko da.
  - g) Finantza-bermeen kontratuak. Hasierako balioespenean eta ondorengo balioespenean erabilitako irizpidea adieraziko da.
  - h) Finantza-tresnen kategorietatik datozen irabazi eta gastuak zehazteko erabilitako irizpideak: interesak, hobariak edo deskontuak, dibidenduak, etab.
  - i) Taldearen esku dauden sozietate nagusiaren ondare-tresnak. Erabilitako balioztatze- eta erregistro-irizpideak adierazi beharko dira.
11. Kontabilitate-estaldurak. Estaldura-eragiketetan bateratutako urteko kontuetan aplikatutako balioztapen-irizpideak adierazi beharko dira, eta honako hauek bereizi beharko dira: arrazoizko balio estaldurak, eskudiruaren fluxuen estaldurak eta atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbien estaldurak. Horrez gain, etenaren kontabilitate-efektuen erregistroarako aplikatutako balioztatze-irizpideak eta etena eragin duten arrazoiak adierazi beharko dira.
12. Izakinak. Balioztatze-irizpideak adierazi beharko dira, eta batik bat, narriaduragatiko eta finantza-gastuen kapitalizazioagatiko balioztatze-zuzenketen gainean erabilitako irizpideak zehaztuko dira.
13. Transakzioak atzerriko monetan. Honako hauek adierazi beharko dira:
- a) Atzerriko monetako transakzioak balioztatze irizpideak eta truke-desberdintasuna egozteko irizpideak.
  - b) Moneta funtzionalean aldaketa bat gertatzen denean, jakinarazi egingo da, baita aldaketa horren arrazoiak ere.
  - c) Gaur egun edo jatorrian atzerriko monetan adierazitako urteko kontu bateratuetan jasotako elementuen kasuan, eurotarako aldaketa kalkulatzeko erabilitako prozedura zehaztuko da.
  - d) Baterakuntza-perimetrotan integratutako sozietateen urteko kontuak beste moneta funtzional batera bihurtzeko erabilitako irizpidea.
14. Mozkinen gaineko zerga. Aktibo eta pasiboak zergen arabera erregistratzeko eta balioztatze erabilitako irizpideak zehaztu beharko dira.
15. Diru-sarrerak eta gastuak. Aplikatutako irizpide orokorrak zehaztu beharko dira. Batik bat, zerbitzuak eskaintzatik eskuratutako irabaziak zehazteko erabilitako irizpideak adieraziko dira. Zerbitzuen eskaintzan egite-portzentajea zehazteko erabilitako metodoak xehatuko dira, eta metodoak aplikatzea posible izan ez bada, horren berri emango da.
16. Hornidurak eta arriskuk. Balioztatze-irizpidea zehaztuko da, eta hala badagokio, obligazioa likidatzerako unean hirugarren batek jaso beharreko konpentsazioak tratatzeko irizpideak zehaztuko dira. Hornidurekin lotutako arriskuak balioztatze eta kalkulatzeko erabilitako metodoaren deskribapen orokor bat egin beharko da.
17. Ingurumen arloko ondare-elementuak. Honako hauek adierazi beharko dira:
- a) Balioztatze-irizpideak, eta ingurumen-xedeetara bideratutako zenbatekoak emaitzei egozteko irizpideak. Batik bat, zenbateko horiek ekitaldiko gastu gisa edo dagokion aktiboaren balio handien bezala hartzeko erabilitako irizpidea adieraziko da.
  - b) Sorburua ingurumen-inpaktuan duten hornidurak balioztatze eta kalkulatzeko metodoaren deskribapena.

18. Langileen gastuak erregistratzeko eta balioztatzeko erabilitako irizpideak. Batik bat, pentsioengatiko konpromisoari dagozkienak.
19. Ekintzetan oinarritutako ordainketak. Kontabilizatzeko erabilitako irizpideak adieraziko dira.
20. Diru-laguntzak, emariak eta legatuak. Horiek sailkatzeko erabilitako irizpideak adieraziko dira, eta hala badagokio, horiek emaitzei egozteko irizpideak adieraziko dira.
21. Negozioen konbinazioak. Taldeko sozietateen banakako kontuetan erabilitako erregistro- eta balioztatzeko-irizpideak adieraziko dira.
22. Baterako negozioak. Taldeko sozietateen baterako negozioari dagozkien saldoak bateratutako urteko kontuetan integratzeko erabilitako irizpideak.  
  
Batik bat, baterakuntzan integratutako sozietate taldeaniztunen aktibo eta pasiboak hautemateko eta balioesteko erabilitako irizpideen berri emango da.
23. Sozietate elkartuak. Bateratutako urteko kontuetan taldearen inbertsioak kontabilizatzeko erabilitako irizpideak adieraziko dira.
24. Alde loteslearen arteko transakzioetan erabilitako irizpideak.  
  
Baterakuntza-perimetroan integratutako enpresen banakako kontuetan transakzioetan aplikatutako irizpideak adieraziko dira, eta horrez gain, atal honen 3. puntuan jaso bezala, aipatutako eragiketetan izandako emaitzak ezabatzean, jakinarazi egingo da.
25. Salmentarako mantendutako ezohiko aktiboak. Salmentarako mantendutako aktibo edo elementu-multzoak sailkatzeko edo balioztatzeko erabilitako irizpideak adieraziko dira; pasibo elkartuak barne.
26. Etendako eragiketak. Etendako jarduerak identifikatzeko eta izendatzeko irizpideak adieraziko dira, baita horiek sortzen dituzten irabazi eta gastuak ere.

## 5. NEGOZIOEN KONBINAZIOAK

### 5.1. Mendeko sozietateen baterakuntza

Sozietate nagusiak (enpresa eskuratzailerak) mendeko sozietate bat (enpresa eskuratuak) bereganatzen duenean, negozio-konbinazio bat sortzen du, eta sozietate nagusiak mendeko sozietatearen ondare-elementu guztien kontrola eskuratu du.

1. Ekitaldian sortzen den konbinazio horietako bakoitzerako, honako informazio hau eskainiko da:
  - a) Eskuratuaren enpresaren izena eta deskribapena.
  - b) Eskuratuaren data.
  - c) Konbinazioa egiteko erabilitako forma juridikoa.
  - d) Negozio-konbinazioa eragin duten arrazoi nagusiak, merkataritza-funtsaren aitortzea eragin duten faktoreen deskribapen kualitatiboa, eskuratuaren eta eskuratuaren konbinazio-eragiketetatik espero diren sinergiak, bakoitza bere aldetik aitortzeko baldintzak betetzen ez dituzten aktibo ukiezinak eta beste faktore batzuk.
  - e) Arrazoizko balioa transferitutako kontraprestazio osoa eskuratu den datan eta kontraprestazio mota nagusi bakoitzaren arrazoizko balioa:
    - Eskudirua.
    - Beste aktibo material edo ukiezinak batzuk, negozioak eta eskuratuaren mendekoak barne.
    - Kontraprestazioaren kuotaren zenbatekoa; akordioaren deskribapena g) letran eman beharko da.
    - Zor-tresnak.
    - Partaidetza eskuratuaren ondarean; igorritako edo igorri beharreko ondare-tresnen kopurua eta horien arrazoizko balioak balioztatzeko metodoa barne.

Horrez gain, eskuratuaren sozietatearen ondarean aurrez zituen partaidetzen berri emango da, hain zuzen, etapan arabera konbinazioetan kontrola eragin ez duten partaidetzen berri.
  - f) Eskuratuaren sozietatearen aktibo eta pasiboen zenbateko aitortuak, eskuratuaren datan. Horrez gain, Kontabilitate Plan Orokorreko erregistro-arauaren eta 19. balioztatzenaren arabera, arrazoizko balioetatik jasotzen ez direnak adierazi beharko dira.

- g) Etorbizuneko gertaeren mende dauden kontraprestazio-kuotetarako eta kuota edo ziurgabetasunengatik kalte-ordain gisa jasotako aktiboetarako: eskuratze-datan aitortutako zenbatekoa, akordioaren deskribapena, emaitza posibleen tartearen balioespen bat, eta eskuratze-baldintzen arabera eskuratzailleak etorkizunean egin beharreko derrigorrezko ordainketen zenbateko maximoaren balioespen bat; balioespena posible izan ezean, gertaeraren berri emango da, eta arrazoiak zehaztuko dira.

Aktibo-kuoten edo kalte-ordainengatik aktiboen gainean ere, informazio berdina adieraziko da. Adibidez, akordioan eskuratuak ebazteke dituen auziengatik eskuratzailleak kalte-ordainak jaso behar dituela dioen klausula bat gaineratzen denean.

- h) Eskuratutako eta kobratu beharreko kontuen arrazoizko balioa, kontratuz kobratu beharreko zenbateko gordinak, eta eskuratze-datan kontratuzko eskudirua fluxuen gainean eginiko balioespen onena eta kobratzea espero ez dena. Informazioa kobratu beharreko kontu mota nagusien arabera emango da: maileguak, zuzeneko finantza-errentamenduak eta kobratu beharreko beste edozein kontu mota.
- i) Negozio-konbinazioetan sortu ahal izan den merkataritza-funtsari dagokionez, 6. oharrean eskatutako informazioa eman beharko da. Era berean, merkataritza-funtsaren zenbatekoa adierazi beharko da, alegia, fiskalki kengarria izatea espero den zenbatekoa.
- j) Negozio-konbinaziotzat hartu aurretik eskuratzailleak eta eskuratuak "aurretiko harremana" duten kasuetan: transakzioaren deskribapen bat, transakzio bakoitzaren zenbateko aitortuta, eta transakzioa aurrez existitzen den harreman baten kitapena bada, kitapen horren zenbatekoa zehazteko erabilitako metodoa.

## 2. Etapen arabera egindako negozio-konbinazio batean:

- a) Arrazoizko balioa eskuratutako ondasunean partaidetzak eskuratzeko datan; hain zuzen, eskuratze-data aurretik eskuratzailleak mantentzen dituen partaidetzen arrazoizko balioa.
- b) Eskuratzailleak negozio-konbinazioaren aurretik eskuratuaren ondarean duen partaidetzaren arrazoizko balioa berriro balioesteak eragiten dituen irabazi edo galera aitortuak eta irabazi edo galera horiek aitortzen dituen galera eta irabazien kontuaren partida.

## 3. Ekitaldi ekonomikoan sortu diren eta banaka hartuta garrantzi handirik ez duten negozio-konbinazioetan, 1. atalean eskatutako informazioa osagarri gisa emango da.

Horrez gain, enpresa eskuratzailleak atal horretan jasotako informazioa emango du, urteko kontu bateratuen amaitze-dataren eta aurkezpen-dataren artean sortutako edo sortze bidean dauden negozio-konbinazio guztietarako; betiere, hori posible den kasu guztietan. Hala izan ezean, informazio hori ez ematearen arrazoia adieraziko da.

## 4. Eskuratze-datatik aurrera ekitaldian egindako negozio-konbinazio bakoitzari dagozkion irabazi eta emaitzak adieraziko dira, baita garrantzi gutxiko konbinazioetan ere, informazio osagarri gisa. Negozio-konbinazio guztiak ekitaldiaren hasieran egin badira, negozio-konbinazioen ondoriozko taldeek ekitaldian eskuratutako irabazi eta emaitzak adieraziko dira.

Informazio hori ematea posible izan ezean, gertaeraren berri eman eta arrazoiak zehaztuko dira.

## 5. Ekitaldian edo aurreko ekitaldietan egindako negozio-konbinazioekin lotuta, honako informazio hau emango da:

- a) Kontuetan aitortuetako zenbatekoa behin-behineko zehaztu bada, hasierako aitortua osoa ez izatearen arrazoiak, eskuratutako aktiboak eta balioespen-denborarako hartutako konpromisoak adieraziko dira, baita ekitaldian zehar balioespenean egindako doitasunen zenbateko eta jatorriak ere.
- b) Eskuratzearen ostean eta ekitaldian zehar, negozio-konbinazioaren parte gisa hartutako zerga geroratuak dagozkien gertaera eta egoeren deskribapen bat.
- c) Eskuratutako aktiboekin edo jasotako pasiboekin lotuta, ekitaldian izandako irabazi edo galeren zenbatekoa eta justifikazioa. Urteko kontu bateratuak ulertzeko garrantzizko informazioa eman dezaketen zenbatekoak, jatorriak edo gorabeherak.
- d) Entitateak kontraprestazio-kuota batengatik aktibo baten eskubidea kobratu, besterendu edo galdu artean, edo taldeak kontraprestazio-kuota batetik sortutako pasibo bat likidatzen duen arte, edo kitatzen edo iraungitzen den arte, aldaketa guztiak zehaztuko dira zenbateko aitortuetan. Horrez gain, likidazioan gertatzen diren desberdintasunak, deskontatu gabeko emaitza posibleen tartean gertatzen diren aldaketa guztiak, aldaketen arrazoiak eta kontraprestazio-kuota balioesteko teknikak adieraziko dira.

## 5.2. Integrazio global edo proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien sozietateen banakako kontuetan aitortutako negozio konbinatuak

Informazioa aurreko atalean zehaztutako baldintzen arabera emango da. Erregistro-arauak eta Kontabilitate Plan Orokorreko 19. balioespenak erregulatutako eskuratze-metodoa aplikatzen zaien negozio-konbinazioak zehaztuko dira; hain zuzen, integrazio global edo proportzionalaren metodoren bidez bateratutako sozietateen banakako kontuetan aitortutakoak.

## 6. MERKATARITZA-FUNTSA

### 6.1. Baterakuntzaren merkataritza-funtsa

Sozietate nagusiak (enpresa eskuratzailea) mendeko sozietate bat (enpresa eskuratua) bereganatzen duenean, negozio-konbinazio bat sortzen du, eta sozietate nagusiak mendeko sozietatearen ondare-elementu guztien kontrola eskuratzen du.

Atal honetan, honako informazio hau emango da:

1. Ekitaldian egin den negozio-konbinazio bakoitzerako, merkataritza-funtsaren zifra adieraziko da, eta negozio-konbinazioei dagozkienak xehatuko dira.

Banaka hartuta garrantzirik ez duten negozio-konbinazioei dagokienez, aurreko informazioa informazio osagarri gisa emango da.

Informazio hori eman beharko da, baita ere, urteko kontu bateratuen amaiera-dataren eta aurkezpen-dataren artean egindako negozio-konbinazioetan. Informazio hori ematea posible izan ezean, arrazoiak zehaztu beharko dira.

Ekitaldiaren buruan, negozio-konbinazioaren batean hartutako merkataritza-funtsaren zatiren bat ez bazaio ezein unitate diru-sortzailerri banatu, azaldu beharko dira bai banatu gabeko merkataritza-funtsaren zenbatekoa, eta bai soberakin hori ez banatzeko arrazoiak ere.

2. Enpresak berdinkatzea egingo du, ekitaldiaren hasierako eta ekitaldiaren amaierako merkataritza-funtsaren liburuen zenbatekoen artean, eta honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Ekitaldi-hasieran funtsak zuen balio gordina, metatutako amortizazioen zenbatekoa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.
- b) Denboraldian aitortutako merkataritza-funts osagarria, elementu besterengarrien taldean barne hartutako eta salmentarako mantendutako merkataritza-funtsa bereizita; betiere, erregistro- eta balioztatze-arauen arabera. Horrez gain, aurrez salmentarako mantendutako elementu besterengarrien taldean sartu ez den eta denboraldian baja emandako merkataritza-funtsaren gaineko informazioa emango da.
- c) Behin-behineko balioespen-denboran zerga geroratuaren arabera aktiboen ondorengo aitortpenagatik egin beharko doikuntzak.
- d) Ekitaldiaren amortizazioa eta, dagokionean, ekitaldian narriaduragatik egindako balio-zuzenketa onartuak. Bereziki, merkataritza-funtsaren bizitza baliagarria zehazteko egin diren estimazioei eta erabilitako amortizazio-metodoari buruzko informazio emango da.
- e) Beste aldaketa batzuk ekitaldiko liburuen zenbatekoan.
- f) Ekitaldi-amaierako merkataritza-funtsaren balio garbia, metatutako amortizazioen balioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.

3. Merkataritza-funtsaren erregistroan eragin duten faktoreak deskribatzea, hala nola merkataritza-funtsaren eta bestelako higiezin ukiezinaren zenbatekoa justifikatzea eta zehaztea, eskudirua sortzen duen unitate bakoitzari esleitutakoak kontuan hartuta.

4. Merkataritza-funtsaren narriaduragatik galera garrantzitsu bakoitzerako, honako hauen berri emango da:

- a) Merkataritza-funtsa eta beste ibilgetu ukiezin edo material batzuk barne hartzen dituen eskudirua sortzeko unitatearen deskribapena, eta eskudirua sortzeko unitatea identifikatzeko taldekatzeko modua aurreko ekitaldietan egindakoaren desberdina denean; halaber, azaldu unitate diru-sortzailea informazio-zatikia bada, enpresak informazio zatikatua eman ohi badu.
- b) Narriaduragatik balioespen-zuzenketaren aitortpena eragin duten zenbatekoa, gertaerak, gertakizunak eta egoerak.
- c) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak zehazteko erabilitako irizpidea, halaxe dagokionean.
- d) Diru-sortzaile unitate narriatuaren zenbateko berreskuragarria, zehaztuz diru-sortzaile unitatearen aipatu zenbateko hori arrazoizko balioa salmenta-kostua kenduta den edo erabilera-balioa.
- e) Zenbateko berreskuragarria salmenta kostuak kendu zaion arrazoizko balioa bada, eta arrazoizko balioa merkatu aktibo batean kotizatutako prezioetatik abiatuta kalkulatu ez bada, enpresak informazio hauxe sartu beharko du:
  - a) Salmenta-kostuak kenduriko arrazoizko balioa kalkulatzeko erabilitako balorazio-tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketaren bat egin bada, enpresak aldaketan berri eman eta zergatik egin diren azaldu beharko du.
  - b) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko zuzendaritzak erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Diru-sortzaile unitatea sentikorra zaie hipotesi gakoiei, eta aurretiko eta oraingo balorazioetan erabilitako deskontutasak barruan ditu, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak balio eguneratuaren arabera metodoari jarraikiz kalkulatu badira.

- f) Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa denetan, uneko estimazioetan eta aurrekoetan erabilitako eguneratze-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoien deskripzioa egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiektzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.
5. Material ibilgetu ukiezinari buruzko idatz-zatietan esandakoarekin bat etorriaz, balio-narriadura kalkulatzeko aldera elementuok merkataritza-funtsik esleitura ez duten unitate diru-sortzaile batean sartzen badira, 4. idatz-zatian eskaturiko informazioa azaltzeaz gain, ekitaldian zehar diru-sortzaile unitate baterako aitortutako balio-narriaturagatik galera edo lehengoratzeko esanguratsua bakoitzeko argitasun hauexek ere emango dira:
- a) Unitate diru-sortzailearen deskribapena (adibidez, produktu-lerro batez ari bagara, fabrika batez, edo geografia-esparru batez), eta azalpenen bat unitate diru-sortzailea informazio zatikia denetz, enpresak informazio zatikatua eman ohi badu.
- b) Aktibo mota bakoitzeko balioaren narriadura-galera aitortuaren edo atzera itzuliaren zenbatekoa.
- c) Unitate diru-sortzailea identifikatzeko aktiboen agregazioa aldatu bada unitate diru-sortzailearen zenbateko berreskuragarriaren aurreko estimaziotik aldatu bada (balego), aurreko eta uneko taldekatzea eramateko eraren deskribapena, bai eta gagozkion unitatea identifikatzeko modua aldatzeko arrazoiak ere.
6. Aurreko idatz-zatietan eskatutako informazioa ematen ez den narriaturagatik galera agregatuei dagokienez, narriaturak jotako galerek eta atzera itzulerek eragindako aktibo mota nagusiak eta narriaturagatik balorazio-zuzenketok aitortzera eraman duten gertakizun eta zirkunstantzia nagusiak.
7. Eskudirua sortzen duen unitate bakoitzean, unitate horretara banatu diren merkataritza-funtseko liburu-tako zenbatekoa adierazgarria bada merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo ukiezin-tako liburu guztietako zenbatekoarekin alderatuta, honako hauek jakinarazi beharko dira:
- a) Unitateari banatutako merkataritza-funtsaren liburu-zenbatekoa.
- b) Unitatearen zenbateko berreskuragarria zehazteko oinarria (hau da, erabilera-balioa edo arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta).
- c) Unitatearen zenbateko berreskuragarria erabilera-balioan oinarriturik balego:
- Aurreikuspen edo aurrekontu berriek besarkatzen duten aldirako, Zuzendaritzak Diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili dituen hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gako unitateen zenbateko berreskuragarria sentikorrean zaie.
  - Hipotesi gako bakoitzeko esleitu zaion edo zaizkion balioak zehazteko zuzendaritzak hartutako ikuspuntuaren deskribapena, halaber, baliook aurretiko eskarmentua islatzen dutenez edo, bestela, kanpoko informazio iturriekin bat datozen eta, halaxe ez balitz, nondik eta nora aldentzen diren aurreko eskarmentutik edo kanpoko informazio iturrietatik.
  - Zuzendaritzak onetsitako aurreikuspen edo aurrekontuetan oinarrituriko diru-fluxuak proiektatu dituen aldia, eta bost urtetik gorako aldia erabiltzen bada, horren aldi luzea zuzentzeko arrazoiak azalpena.
  - Aurrekontu edo aurreikuspen berriek besarkatutako epealditik haragokora diru-fluxuen proiektzioak luzatzeko erabilitako hazkunde-tasa, eta era berean, unitateak ekiten dion merkaturako, edo enpresak diharduen herrialde edo herrialdeetarako, edo produktu edo industrietarako batez besteko hazkunde-tasa gaintzen duen hazkunde-tasa erabiliko balitz, horren justifikazioa pertinentea.
  - Diru-fluxuen proiektzioei aplikaturiko deskontu-tasa edo tasak.
- d) Unitatearen zenbateko eskuragarria arrazoizko balioan salmenta-kostuak kenduta oinarriturik balego, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak zehazteko erabilitako metodologia. Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak ez balitz zehaztu unitaterako merkatu-prezio behagarriaren bat erabilia, informazio hauxe ere eman beharko da:
- Zuzendaritzak arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta zehazteko erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gako unitateen zenbateko berreskuragarria sentikorrean zaie.
  - Hipotesi gako bakoitzeko esleitu zaion edo zaizkion balioak zehazteko zuzendaritzak hartutako ikuspuntuaren deskribapena, halaber, baliook aurretiko eskarmentua islatzen dutenez edo, bestela, kanpoko informazio iturriekin bat datozen eta, halaxe ez balitz, nondik eta nora aldentzen diren aurreko eskarmentutik edo kanpoko informazio iturrietatik.
- Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak diru-fluxu proiektzioa deskontatuak erabilia zehaztuko balitz, horri buruzko informazioa ere argitu beharko litzateke:
- Zuzendaritzak Diru-fluxuak proiektatu dituen epealdia.
  - Diru-fluxuen proiektzioak luzatzeko erabili den hazkunde-tasa.
  - Diru-fluxuen proiektzioei aplikaturiko deskontu-tasa edo tasak.

- e) Unitatearen zenbateko berreskuragarria zehazteko zuzendaritza oinarri den hipotesi gako baten arrazoiko aldaketa posibleak balekar unitatearen liburu-zenbatekoak zenbateko berreskuragarriari gainez egingo liokeela:
- Liburu-zenbatekok unitatearen zenbateko berreskuragarriari ateratako kopuru aldea.
  - Hipotesi gakoari esleitutako balio edo balioak.
  - Hipotesi gakoari esleitutako balio edo balioak zenbatgarreneko zenbatekoan aldatu behar diren, behin zenbateko berreskuragarria neurtzeko erabilitako beste aldagarrien gainetik aldaketa horren ondorio liratekeen eragin guztiak zenbateko berreskuragarriari gehitu eta gero, unitatearen zenbateko berreskuragarri hori bera liburu-zenbatekoarekin bat berdintzeko.

Bestetara balitz, beren beregi azaldu beharko da ez dagoela balio narriaduraren erregistroa lekarkeen arrazoiko aldaketa posiblearik.

8. Merkataritza-funtseko liburu-tako zenbatekoa eskudirua sortzen duten unitate batzuen artean banatu bada, eta, ondorioz, unitate bakoitzari dagokion zenbatekoa ez bada adierazgarria merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo ukiezin-tako liburu guztietako zenbatekoarekin alderatuta, horren berri eman beharko da, merkataritza-funtseko liburu-tako zenbatekoaren guztizkotik unitate bakoitzari dagokiona zehaztuta.

Gainera, unitate horietako baten zenbateko berreskuragarria hipotesi giltzarri berdinetan oinarritzen bada, eta unitateen artean banatutako merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo ukiezin-tako liburu-zenbatekoen batura adierazgarria bada merkataritza-funtseko liburu-tako zenbatekoaren guztizkoaren aldean, horren berri eman beharko da, honako hauek gaineratuta:

- a) Unitate haien artean banatutako liburu-balio-tako merkataritza-funtseko zenbateko guztizkoa.
- b) Hipotesi gakoaren deskribapena.
- c) Hipotesi gako bakoitzari esleitutako balioa edo balioak zehazteko zuzendaritzak erabilitako ikuspuntuaren deskribapena, bai eta aipatu balioek iragan eskarmentua islatzen ote duten, edo, kasurako, kanpoko informazio-iturriekin batera dabilizan ere eta, halaxe ez balitz, iragan eskarmentutik edo kanpoko informazio-iturrietatik zertan eta zergatik aldentzen diren.
- d) Zuzendaritzak unitatearen zenbateko berreskuragarria oinarritu duen hipotesi gako batean arrazoiko aldaketa posiblearen batek balekar unitatearen liburu-balioko zenbatekoak bere zenbateko berreskuragarria gaindituko lukeela:
  - Unitatearen zenbateko berreskuragarriak zenbatean gainezkatzen duen liburu-balioko zenbatekoa.
  - Hipotesi gako edo gakoari esleituriko balioa.
  - Hipotesi gakoari esleitutako balioa edo balioak zenbatean aldatu behar diren, behin, zenbateko berreskuragarria neurtzeko erabilitako bestelako aldagaien gainetik, aldaketa horren ondorio liratekeen eragin horiek guztiak balio berreskuragarriari gehitu eta gero, unitatearen aipatu zenbateko berreskuragarriak bat egin dezan bere liburu-balioekin.

## **6.2. Integrazio global edo proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien sozietateen banakako kontuetan aitortutako merkataritza-funtsa**

Informazioa aurreko atalean zehaztutako baldintzen arabera emango da. Kontabilitate Plan Orokorreko 19. balioespen- eta erregistro-arauak erregulatutako eskuratze-metodoa aplikatzean sortutako merkataritza-funtsa zehaztuko da; hain zuzen, integrazio global edo proportzionalaren metodoren bidez bateratutako sozietateen banakako kontuetan aitortutako negozio-konbinazioei dagokiena.

## **7. DIFERENTZIA NEGATIBOAK**

### **7.1. Baterakuntzaren diferentzia negatiboak**

1. Galera eta irabazien kontu bateratutako partiden osaeraren analisisa: “diferentzia negatiboa negozio-konbinazioetan» eta “diferentzia negatiboa baliokidetasunean jarritako sozietateen baterakuntzan”. Transakzioak eragindako epigrafe hauen saldoa garrantzitsua denean, arrazoiak zehaztu beharko dira.
2. Amaierako saldoaren banakapena, baterakuntzaren diferentzia negatiboak eragin dituzten partaidetzen arabera.
3. Horrez gain, merkatu aktibo bati erreferentzia egitearen ondorioz beren balioespena egitea posible izan ez den aktibo ukiezin eta kuota erregistratu gabeak deskribatutako dira.

### **7.2. Integrazio global edo proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien sozietateen banakako kontuetan aitortutako diferentzia negatiboak**

Informazioa aurreko atalean zehaztutako baldintzen arabera emango da. Kontabilitate Plan Orokorreko 19. erregistro- eta balioespen-arauak erregulatutako eskuratze-metodoa aplikatzean sortutako diferentzia negatiboak zehaztuko dira; hain zuzen,

integrazio global edo proportzionalaren metodoren bidez bateratutako sozietateen banakako kontuetan aitortutako negozio-konbinazioei dagozkienak.

## 8. KANPOKO KIDEAK

Honako informazio hau emango da:

1. Azpitalde hau xehatu eta mendeko sozietate bakoitzerako honako informazio hau emango da:
  - a) Ekitaldian gertatutako mugimendua eta berau eragin duten kausak
  - b) Saldoaren osaera ekitaldiaren amaieran, honako hauek bereizita: funts propioetan duen partaidetza, balio-aldaketengatiko doikuntzak eta diru-laguntzak, emariak eta legatuak.
2. Mendeko enpresa ekitaldian zehar eskuratu bada, kanpoko kideek eskuratze-datan eskuratutakoaren gainean duten zenbateko aitortua adieraziko da.
3. Arau hauen 29.1.d) artikulua araberara, kanpoko kideen partaidetza urteko kontu bateratuetan kontabilizatutako merkataritza-funtsean.
4. Taldeko sozietateek mendeko sozietate baten ondare-tresnen gainean egindako akordio garrantzitsuen deskribapena. Etorkezuneko erosketa-konpromisoaren edo salmenta-aukeraren kasuan, akordioa gauzatuz gero, eskudirua edo beste aktibo batzuk emateko obligazioen deskribapena.

## 9. ALDAKETAK TALDEKO SOZIEATEEN PARTAIDETZA-PORTZENTAJEAN

1. Nagusiak mendeko baten ondasunean duen partaidetza aldatuz gero, eta aldaketa horrek kontrol-galera eragin ez arren, nagusiaren jabeen dagokien ondare garbian izandako eragin berri eman beharko da. Bereziki, eragiketa garrantzitsu bakoitzean honako informazio hau emango da:
  - a) Aldaketak erreserbetan.
  - b) Aldaketak honako epigrafe hauetan: A-2) Balio-aldaketagatiko doikuntzak eta A-3) Diru-laguntzak, emariak eta jasotako legatuak.
  - c) Hala badagokio, kide gutxiengodunei dagokien merkataritza-funtsa.
2. Mendeko baten kontrola galduz gero, irabazi edo galeren berri emango da, betiere, arau hauen 31. artikuluan jasotako araberara. Batik bat, honako informazio hau emango da:
  - a) Inbertsioaren aitortuari dagokion irabazi edo galeraren parte, hain zuzen, kontrola galtzen duen datan duen arrazoizko balioagatik mendeko entitateak zuena.
  - b) Galera eta irabazi bateratuen kontuan birsailkatutako onura edo galeren parte.
  - c) 31. artikuluan adierazitako doikuntzak egin ostean, dagoen irabazi edo galera.

## 10. BATERAKO NEGOZIOAK

1. Baterako negozioetan, interes garrantzitsuak adieraziko eta deskribatuko dira, eta negozioak hartzen duen forma zehaztuko da. Hain zuzen, honako hauek bereiziko dira:
  - a) Batera kontrolatutako ustiapenak.
  - b) Batera kontrolatutako aktiboak.
  - c) Integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen zaien sozietate taldeaniztunak.
2. 21. oharren 2. atalean eskatutako informazioaz gain, honako arrisku hauei dagokien zenbateko agregatuen berri eman beharko da, galtzeko aukera txikia denean izan ezik:
  - a) Baterako negozioetan inbertsioekin lotutako edozein arrisku eta beste partaide batzuekin batera beste arrisku batzuetan duen parte.
  - b) Erantzule izan daitekeen baterako negozioen arriskueta duen parte.
  - c) Baterako negozio bateko beste partaide batzuen pasiboen erantzule izateko aukerak eragindako arriskuak.



3. Honako konpromiso hauen guztizko zenbatekoa jakinaraziko da:
  - a) Baterako negozioetan duen partaidetzarekin lotuta, kapital-inbertsioaren gainean hartutako konpromisoa, eta beste partaide batzuekin batera kapitala inbertitzeko hartutako konpromisoetan dagokion parte.
  - b) Baterako negozioek kapitala inbertitzeko hartutako konpromisoetan duen partaidetza.
4. Balantzeko, galera eta irabazien kontuko, eskudiruaren fluxuen egoerako eta bateratutako ondare garbiaren aldaketen egoerako partida garrantzitsu bakoitzean, baterako negozioei dagozkien zenbatekoak xehatuko dira. Taldeak parte hartzen duen baterako negozio guztietarako, informazio hori modu informazio osagarri gisa gaineratuko da.

## 11. PARTAIDETZAK BALIOKIDETASUNEAN JARRITAKO SOZIETATEETAN

Honako informazio hau emango da:

1. Partida honen banakapena, baliokidetasunean jarritako sozietateetan arabera. Ekitaldiko mugimendua eta berau sortu duten arrazoiak zehaztuko dira.
2. Inbertsioen arrazoizko balioa kotizazio-prezioak dituzten sozietateetan.
3. Sozietateen finantza-informazio laburbildua. Bertan, aktiboek, pasiboek, ohiko irabaziek eta ekitaldiaren emaitzak pilotutako zenbatekoa zehaztuko da.
4. Elkartuaren aitortu gabeko galeren parte. Ekitaldiari dagozkion galerak eta pilotutako galerak bereiziko dira, sozietate inbertitzaileak sozietatearen galeretan dagokion parte aitortzeari uzten dionean.
5. Baliokidetasunean jarritako sozietateen ekitaldiaren emaitza; hain zuzen, sozietate inbertitzaileari dagokiona. Galera eta irabazien kontuan kontabilizatu den eta zuzenean ondare garbian nabarmentzen den zenbatekoa jakinarazi beharko da. Bereziki, etendako jardueretan inbertitzaileari dagokion partearen berri emango da.
6. 21. oharren 2. atalean eskatutako informazioaz gain, taldeko sozietateek beste inbertitzaile batzuekin batera hartutako elkartu baten pasibo-kuoten berri emango da, eta sozietate inbertitzailea elkartu baten pasibo guztien edo batzuen erantzule subsidiarioa izateagatik sortutako pasibo-kuoten berri emango da.

## 12. IBILGETU MATERIALA

1. Epigrafe honetan jasotako balantze bateratuko partida bakoitzaren ekitaldiari dagozkion mugimendu-analisiak, pilotutako amortizazioak eta narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa pilatuak. Honako hauek adierazi beharko dira:
  - a) Hasierako saldoa.
  - b) Sarrera edo zuzkidurak, negozio-konbinazioen bidez eta diruzkoak ez diren ekarpenen bidez egindako eskuratzek zehaztuta, eta handitze edo hobekuntzei dagozkienak zehaztuta.
 

Eguneraketak 2012ko abenduaren 16/2012 Legearen babesean egiten direnean, honako hauek adierazi behar dira:

    - Balantzean eginiko elementuen eguneratzearen zenbatekoa eta eguneratzeak amortizazioetan izandako eragina.
    - Higiezinak eguneratzen badira, lurzoruaren eta eraikuntzaren balioa bereizi egingo dira.
  - c) Narriaduragatiko balioztapen-zuzenketen itzultzea.
  - d) Transferentziengatik edo beste partida batzuetara egindako intsuldaketengatik eginiko gehikuntzak/murrizketak; batik bat, salmentarako eta etendako eragiketarako mantendutako ezohiko aktiboek dagozkienak.
  - e) Irteerak, bajak eta murriztapenak.
  - f) Narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa, ekitaldian aitortutakoak eta pilotutakoak bereizita, bai eta galerok edo narriaduragatiko atzera itzulerak sartuta dauden galera-irabazien kontuko partida edo partidak ere.
  - g) Amortizazioak, ekitaldian aitortutakoak eta pilotutakoak bereizita.
  - h) Amaierako saldoa.
2. Honako hauen gaineko informazioa:
  - a) Balioetsitako desegite-, erretiro- edo birgaitze-kostuak, aktiboek balio handienak barne hartuta, eta horiek balioesteko kontuan hartutako egoerak zehaztuta.
  - b) Elementu-klaseek erabilitako amortizazio-koefizienteak edo balio-bizitzak, eta erabilitako amortizazio-metodoak. Ekitaldiko amortizazioa eta pilotutako amortizazioa adierazi beharko dira; hain zuzen, epigrafe honetako elementu nagusi bakoitzari dagokiona.

- c) Ekitaldi honetan edo etorkizuneko ekitaldietan eragin garrantzitsua badute, hondar-balioei, balioetsitako desegite-, erretiro- edo birgaitze-kostuei, eta amortizazio-metodoei eragiten dieten balioespen-aldaketen berri emango da.
- d) Espainiako lurraldetik kanpo kokatutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik pilatutako balioespen-zuzenketak zehaztuta.
- e) Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta berau zehazteko erabilitako irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentzietan jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.
- f) Ekitaldian aitortu edo itzulitako zenbateko garrantzitsuko narriaduragatiko balio edo bere atzera itziltzearen balioztapen-zuzenketa bakoitzean, banakako ibilgetu material bakoitzerako honako hau adieraziko da:
- Ibilgetu materialaren izaera eta dagokion segmentu nagusia, enpresak informazio segmentatua eman ohi badu.
  - Narriaduragatiko galeraren aitorpena eta/edo itzulketa eragin duten zenbatekoa, gertaerak, gertakizunak eta egoerak.
  - Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak zehazteko erabilitako irizpidea, kasua bada.
  - Narriatutako aktiboaren zenbateko berreskuragarria, adieraziz aktiboaren aipatu zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo erabilera-balioa denetz.
  - Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta denean, eta arrazoizko balioa ez bada merkatu aktibo bateko kotizatutako prezioetatik abiatutik, enpresak honako informazio hau gehitu beharko du:
    - a) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko erabilitako tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketarik egin bada, enpresak aldaketa horien berri eman beharko du, bai eta aldaketan zergatiarena ere.
    - b) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko zuzendaritzak erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoei sentikorren zaie aktiboaren zenbateko berreskuragarria, uneko eta aurretiko balioespenetan erabilitako deskontu-tasa edo tasak hartzen dituzte euren baitan, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatu badira balio-eguneratuaren metodoa erabiliz.
  - Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa balitz, deskontu-tasa edo tasak adieraziko dira egungo balioespenetan eta aurretik egindakoetan. Era berean, eskudirua fluxuen hedapenak zein hipotesi nagusiren gainean oinarritu diren deskribatuko da eta balioak nola zehaztu diren adieraziko da. Horrez gain, eskudirua fluxuen hedapenak hartutako denboraldia eta bosgarren urtetik aurrera fluxu horien hazkunde-tasa zenbatekoa den zehaztuko da.
- g) Aurreko puntuan eskatutako informazioa ematen ez dutenen kasuan, narriaduragatiko balio galerak eta itzulketa agregatuei dagokienez, narriaduragatiko galerak eta itzulketak jasan dituzten ibilgetu mota nagusiak eta narriaduragatiko balioespen-zuzenketen aitorpena eta itzulketa eragin duten gertakizunak eta egoera nagusiak zehaztuko dira.
- h) Ibilgetu materialeko elementuengatik ekitaldiaren emaitzan barne hartu diren hirugarrenen konpentsazioen zenbatekoa jakinaraziko da, eta balioa narriatu, galdu edo erretiratu den zehaztuko da.
- i) Ibilgetu materiala eskudirua sortzeko unitate batean sartuta badago, narriaduragatiko galeraren informazioa 6. oharrean zehaztutakoaren arabera emango da.
- j) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatuen ondorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuenganduta eragin kuantitatiboa adieraziz.
- k) Zuzenean ustiapenari eragiten ez dion ibilgetu materialaren ezaugarriak adieraziko dira, eta kontabilitate-balioa, amortizazioa eta pilatutako narriaduragatiko balioztapen-zuzenketak zehaztuko dira.
- l) Erabiltzen diren eta erabat amortizatuta dauden ondasunen zenbatekoa eta ezaugarriak adieraziko dira, eraikuntzak eta gainerako elementuak bereizita.
- m) Bermeekin eta itzultzeekin lotutako ondasunak, eta titulartasun-murrizketa eta horiei dagozkien zenbatekoak.
- n) Ibilgetu materialarekin lotutako diru-laguntzak, emariak eta jasotako legatuak adieraziko dira, aktibo horien zenbatekoa zehaztuta.
- o) Erosketa-konpromiso finkoak, finantzaketa-iturri aurreikusgarriak eta salmenta-konpromiso finkoak.
- p) Ibilgetu materialeko ondasunei eragiten dieten gainerako funtsezko gertaerak zehaztuko dira: Errentamenduak, aseguruak, auziak, bahiturak eta egoera analogoak.
- q) Errentamendu finantzarioak eta ibilgetu materialeko ondasunen gaineko antzeko eragiketak. Memoriaren beste parte batzuetan eskatutako informazioari kalterik eragin gabe.
- r) Higiezinaren kasuan, eraikuntzaren balioa eta lursailaren balioa zehaztuko dira, banan-banan.
- s) Ibilgetu materialeko elementuen besterentze edo xedapenek ekitaldian eragindako emaitza.

### 13. ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Aurreko oharrean eskatutako informazioaz gain, ondasun higiezinetakoko inbertsio gisa sailkatutako higiezinak deskribatuko dira, eta honako hauen berri emango da:

1. Ondasun higiezinetakoko inbertsio motak eta horiei emandako xedea.
2. Inbertsio horietatik sortutako irabaziak eta ustiapen-gastuak; irabaziak sortzen dituzten inbertsioak eta irabaziak sortzen ez dituzten inbertsioak bereiziko dira.
3. Egindako ondasun higiezinetakoko inbertsioak egiteko, horiek eragindako irabaziak kobratzeko edo beste baliabide batzuen bidez horiek besterendu edo eskuratu ostean lortutako baliabideak kobratzeko murrizketak eta horien zenbatekoak.
4. Higiezinetakoko inbertsioak eskuratzeko, eraikitzeko edo garatzeko, edo konponketa-lanetarako, mantentze-lanetarako edo hobekuntza-lanetarako kontratu-obligazioak.

### 14. IBILGETU UKIEZINA

Honako informazio hau emango da:

1. Epigrafe honetan jasotako balantze bateratuko partida bakoitzaren ekitaldiari dagozkion mugimendu-analisiak, pilotutako amortizazioak eta narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa pilatuak. Honako hauek adierazi beharko dira:
  - a) Hasierako saldoa.
  - b) Sarrera edo zuzkidurak, negozio-konbinazioen bidez eta diruzkoak ez diren ekarpenen bidez sortutako barne-aktiboak eta egindako eskuratzeko zehaztuta.
  - c) Narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa itzultzea.
  - d) Transferentziengatik edo beste partida batzuetara egindako intsuldaketengatik eginiko gehikuntzak/murrizketak; batik bat, salmentarako mantendutako ezo-horiko aktiboak dagozkienak.
  - e) Irteerak, bajak eta murriztapenak.
  - f) Narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa, ekitaldian aitortutakoak eta pilotutakoak bereizita, halaber, harako narriaduragatiko galera edo atzera itzultze sartuta dauden galera-irabazien kontuko partida edo partidak.
  - g) Amortizazioak, ekitaldian aitortutakoak eta pilotutakoak bereizita.
  - h) Amaierako saldoa.
2. Honako hauen gaineko informazioa:
  - a) Bermeekin eta itzultzeekin lotutako ondasunak, eta titulartasun-murrizketa eta horiei dagozkien zenbatekoak.
  - b) Elementu-klaseek erabilitako amortizazio-koefizienteak edo balio-bizitzak, eta erabilitako amortizazio-metodoak. Ekitaldiko amortizazioa eta pilotutako amortizazioa adierazi beharko dira; hain zuzen, epigrafe honetako elementu nagusi bakoitzari dagokiona.
  - c) Ekitaldi honetan edo etorkizuneko ekitaldietan eragin garrantzitsua badute, hondar-balioei, balioetsitako desegite-, erretiro- edo birgaitze-kostuei, eta amortizazio-metodoei eragiten dieten balioespen-aldaketen berri emango da.
  - d) Eskubideak Espainiako lurraldetik kanpo erabilgarri dituzten edo Espainiako lurraldetik kanpo kokatutako inbertsioekin lotuta dauden ibilgetu ukiezinako inbertsioen ezaugarriak; kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik pilotutako balioespen-zuzenketa zehaztuta.
  - e) Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta berau zehazteko erabilitako irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentziekin jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.
  - f) Ekitaldian aitortu edo itzultutako zenbateko garrantzitsuko narriaduragatiko balioztapen-zuzenketa bakoitzean, banakako ibilgetu ukiezin bakoitzerako honako hau adieraziko da:
    - Ibilgetu ukiezinaren izaera, eta zein segmentu nagusiri dagokion, baldin eta enpresak informazio segmentatua eman ohi badu.
    - Narriaduragatiko galeraren aitortzea eta itzulketa eragin duten zenbatekoa, gertaerak, gertakizunak eta egoerak.
    - Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak zehazteko erabilitako irizpidea, kasuan.
    - Narriaturiko aktiboaren zenbateko berreskuragarria, eta adierazi aktiboaren aipatu zenbateko berreskuragarria aktiboaren arrazoizko balioa denetz, arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den ala erabilera-balioa.

- Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den kasuan, eta arrazoizko balioa ez bada merkatu aktibo batean kotizaturiko prezioetatik abiatuz lortu, enpresak informazio hauxe eman beharko du:
  - a) Arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta kalkulatzeko erabilitako balorazio-tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketarik egin bada, enpresak aipatu aldaketen berri eman beharko du, bai eta haiek egiteko arrazoiak ere.
  - b) Zuzendaritzak arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta kalkulatzeko oinarri hartutako hipotesi gakoak. Aktiboaren zenbateko berreskuragarria hipotesi gakoari sentikorren zaie, eta uneko eta aurretiko balioespenetan erabilitako deskontu-tasa edo tasak hartzen dituzte euren baitan, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatu badira balio-eguneratuaren metodoa erabiliz.
- Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa denean, uneko eta aurreko balioespenetan erabili diren deskontu-tasa edo tasak adieraziko dira. Era berean, eskudiruaren fluxuen hedapenak zein hipotesi nagusiren gainean oinarritu diren deskribatuko da eta balioak nola zehaztu diren adieraziko da. Horrez gain, eskudiruaren fluxuen hedapenak hartutako denboraldia eta bosgarren urtetik aurrera fluxu horien hazkunde-tasa zenbatekoa den zehaztuko da.
- g) Aurreko puntuan eskatutako informazioa ematen ez dutenen kasuan, narriaduragatiko balio galera eta itzulketa agregatuei dagokienez, narriaduragatiko galera eta itzulketak jasan dituzten ibilgetu mota nagusiak eta narriaduragatiko balioespen-zuzenketen aitorpena eta itzulketa eragin duten gertakizun eta egoera nagusiak zehaztuko dira.
- h) Ibilgetu ukiezina eskudirua sortzeko unitate batean sartuta badago, narriaduragatiko galeraren informazioa 6. oharrean zehaztutakoaren arabera emango da.
- i) Zuzenean ustiapenari eragiten ez dion ibilgetu ukiezinarene ezaugarriak adieraziko dira, eta kontabilitate-balioa, amortizazioa eta pilatutako narriaduragatiko balioztapen-zuzenketak zehaztuko dira.
- j) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatuen ondorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuengan duten eragin kuantitatiboa adieraziz.
- k) Erabiltzen diren eta erabat amortizatuta dauden ibilgetu ukiezinen zenbateko eta ezaugarriak.
- l) Ibilgetu ukiezinarekin lotutako diru-laguntzak, emariak eta jasotako legatuak adieraziko dira, aktibo horien zenbatekoa zehaztuta.
- m) Erosketa-konpromiso finkoak, finantzaketa-iturri aurreikusgarriak eta salmenta-konpromiso finkoak.
- n) Ibilgetu ukiezineko elementuen besterentze edo xedapenak ekitaldian eragindako emaitza.
- o) Ekitaldian zehar gastu gisa aitortu diren ikerketa- eta garapen-gastuen zenbateko agregatua, eta ikerketa- eta garapen-gastuen kapitalizazioaren justifikazioa.
- p) Modu fidagarrian zehaztu daitekeen bitzita erabilgarriko ibilgetuak zehaztuko dira, honako hauek adieraziz: zenbatekoa, izaera eta haien bitzita baliaeraren estimazioaren fidagarritasun-falta eragiten duten inguruabarrak.
- q) Ibilgetu ukiezineko ondasunei eragiten dieten gainerako funtsezko gertaerak zehaztuko dira: errentamenduak, aseguruak, auziak, bahiturak eta egoera analogoak.

## 15. ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

Errentamendu-eragiketarako eta antzeko eragiketarako eman beharreko informazioa honako hau da:

### 15.1. Finantza-errentamenduak

1. Errentatzaileak honako hauen berri eman beharko du:

- a) Finantza-errentamenduetan, guztizko inbertsio gordinaren (hala badagokio, erosketa-aukera zehaztuta) eta ekitaldia amaitzean duen balioaren arteko berdinkatzea. Errentamendu horien bidez jaso beharreko kobrantza minimoak eta beren egungo balioa zehaztuko dira, honako epe hauek kontuan hartuta:
  - Urtebete arte;
  - Urtebete eta bost urte artean;
  - Bost urte baino gehiago.
- b) Finantza-errentamendu kontratuen ekitaldi hasierako zenbatekoaren eta ekitaldi amaierako zenbatekoaren berdinkatzea.
- c) Finantza-errentamenduen akordio garrantzitsuen deskribapen orokor bat.
- d) Sortu gabeko finantza-sarrerak eta eragiketaren finantza-osagaia banatzeko irizpidea.
- e) Ekitaldiko irabazi gisa aitortutako kuota kontingenteen zenbatekoa.

f) Kobratzeke dauden errentamenduengatik sortutako kaudimen-gabeziak estaltzeko narriaduragatiko balio-zuzenketa

2. Errentariak honako hauen berri eman beharko du:

- a) Aktibo-klase bakoitzerako, hasieran aktiboari aitortutako zenbatekoa; aktiboaren arrazoizko balioari dagokion edo egin beharreko ordainketa minimoen egungo balioari dagokion zehaztuta.
- b) Errentamenduagatiko etorkizuneko ordainketa minimoen (hala badagokio, erosketa-aukera zehaztuta) eta ekitaldiaren amaierako balioaren berdinkatzea. Errentamenduagatiko ordainketa minimoak eta egungo balioa zehaztuko dira, honako epe hauek kontuan hartuta:
  - Urtebete arte;
  - Urtebete eta bost urte artean;
  - Bost urte baino gehiago.
- c) Ekitaldiko gastu gisa aitortutako kuota kontingenteen zenbatekoa.
- d) Kitatu ezin diren finantza-azpierrementuengatik ekitaldiaren amaieran jasotzea espero den etorkizuneko ordainketa minimoen zenbatekoa.
- e) Finantza-errentamenduen akordio garrantzitsuen deskribapen orokor bat. Bertan, honako hauen berri emango da:
  - Adostutako kuota kontingenteak zehazteko oinarriak.
  - Izatea, kontratuak berritzeko epeak, erosteko aukerak eta prezioak eguneratzeko edo mailakatzeko klausulak.
  - Errentamendu-kontratuen arabera, errentariari ezarritako murrizketak, hain zuzen, dibidenduen banaketari, zorpetze osagarriari eta errentamendu-kontratu berriei dagozkienak.
- f) Kontratu horietatik sortzen diren aktiboei memorian jaso beharreko eta aurreko oharretan zehaztutako informazioa aplikatuko zaie, ibilgetu materialari, ondasun higiezinak inbertsioei eta ukiezinei dagokienez.

## 15.2. Errentamendu operatiboak

1. Errentatzaileak honako hauen berri eman beharko du:

- a) Kitatu ezin diren errentamendu operatiboei dagozkien errentamenduagatiko etorkizuneko kobrantza minimoen zenbatekoa, eta honako epe hauei dagozkien zenbatekoak:
  - Urtebete arte;
  - Urtebete eta bost urte artean;
  - Bost urte baino gehiago.
- b) Errentamenduari dagozkion ondare eta akordio garrantzitsuen deskribapen orokor bat.
- c) Ekitaldiko irabazi gisa aitortutako kuota kontingenteen zenbatekoa.

2. Errentariak honako hauen berri eman beharko du:

- a) Kitatu ezin diren errentamendu operatiboei dagozkien errentamenduagatiko etorkizuneko ordainketa minimoen zenbatekoa, eta honako epe hauei dagozkien zenbatekoak:
  - Urtebete arte;
  - Urtebete eta bost urte artean;
  - Bost urte baino gehiago.
- b) Kitatu ezin diren azpierrementu operatiboengatik ekitaldiaren amaieran jasotzea espero den etorkizuneko ordainketa minimoen zenbatekoa.
- c) Ekitaldiko gastu eta irabazi gisa aitortutako errentamendu eta azpierrementu operatiboaren kuotak. Honako bereizketa hau egingo da: errentamenduagatiko ordainketa minimoen zenbatekoak, kuota kontingenteak eta azpierrementu-kuotak.
- d) Errentamendu-akordio garrantzitsuen deskribapen orokor bat. Bertan, honako hauen berri emango da:

- Adostutako kuota kontingenteak zehazteko oinarriak.
- Izatea, kontratuak berritzeko epeak, erosteko aukerak eta prezioak eguneratzeko edo mailakatzeko klausulak.
- Errentamendu-kontratuen arabera, errentariari ezarritako murrizketak, hain zuzen, dibidenduen banaketari, zorpetze osagarriari eta errentamendu-kontratu berriei dagozkienak.

## 16. FINANTZA-TRESNAK

### 16.1. Gogoeta orokorrak

Ondorengo idatz-zatietan eskatutako informazioa Kontabilitate Plan Orokorraren 9. erregistro- eta balioespen-arauan jasotako finantza-tresnei aplikatuko zaie eta 2013ko irailaren 18ko ebazpenean, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuarenean, han erregistratzeko, baloratzeko eta informatzeko arauak ebatsi dira, aktiboen balioaren narriadurari buruzko urteko kontuen memorian sartu beharrekoak.

Memorian informazioa aurkezteko, informazio batzuk finantza-tresna moten arabera eman beharko dira. Horiek aipatutako 9. erregistro- eta balioespen-arauan jasotako finantza-tresnen eta kategorien izaera kontuan hartuta zehaztuko dira. Baterakuntzan aplikatutako irizpidearen arabera zehaztutako moten berri emango da.

Narriadurarik badela erakusten duten ebidentziak erabakitzeke, balio-zuzenketak eta atzera-itzultzeak edo lehengoratzekak erregistratzeko eta aktibo finantzario narriatuei baja emateko aplikatu diren irizpideen berri emango du enpresak. Bereziki, zordun komertzialen eta kobratzeko bestelako kontuen balio-zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak azpimarratu beharko dira. Halaber, birnegoziatu izan ez balira mugaeguneratuta edo narriatuta egongo lirakekeen aktibo finantzario birnegoziatuei aplikatutako kontabilitate-irizpideak zehaztu beharko dira. Aktibo finantzario-mota bakoitzeko, narriadura banaka zehaztu denean ere informatuko da, bai eta balio-zuzenketaren kalkuluan enpresak kontsideratu dituen faktoreak, eta kontu balio-zuzentzailearen aldaketan kontziliazioa ekitaldian zehar.

### 16.2. Finantza-tresnek finantza egoeran eta taldearen emaitzetan duen garrantziari buruzko informazioa

#### 16.2.1. Balantze bateratuarekin lotutako informazioa

##### a) Finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen kategoriak

Balioa liburuetan zehaztuko da, Kontabilitate Plan Orokorraren 9. erregistro- eta balioespen-arauan jasotako finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen kategoria bakoitzean, eta betiere, honako egitura honen arabera:

##### a.1) Finantza-aktiboak

MOTAK KATEGORIAK	FINANTZA-TRESNAK, EPE LUZERA						FINANTZA-TRESNAK, EPE LABURRERA						GUZTIRA	
	ONDARE-TRESNAK		ZORRA ADIERAZTEN DUTEN BALIOAK		KREDITUAK DERIBATUAK BESTE BATZUK		ONDARE-TRESNAK		ZORRA ADIERAZTEN DUTEN BALIOAK		KREDITUAK DERIBATUAK BESTE BATZUK			
	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1
Arrazoizko baliozko aktiboak, aldatetekin irabazi eta galeretan - Negoziatzeko mantenduak - Beste batzuk														
Iraungi arte mantendutako inbertsioak														
Kobratu beharreko maileguak eta partidak														
Salmentarako erabilgarri dauden aktiboak: - Arrazoizko balioan balioetsiak - Kostuaren arabera balioetsiak														
Estaldura-deribatuak														
<b>Guztira</b>														

a.2) Finantza-pasiboak

MOTAK  KATEGORIAK	FINANTZA-TRESNAK, EPE LUZERA						FINANTZA-TRESNAK, EPE LABURRERA						GUZTIRA	
	ZORRAK KREDITU-ENTITATEEKIN		OBLIGAZIOAK ETA BESTE BALIO NEGOZIAGARRI BATZUK		DERIBATUAK BESTE BATZUK		ZORRAK KREDITU-ENTITATEEKIN		OBLIGAZIOAK ETA BESTE BALIO NEGOZIAGARRI BATZUK		DERIBATUAK BESTE BATZUK			
	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1	Ek x	Ek x-1
Ordaindu beharreko zorrak eta partidak														
Arrazoizko baliozko pasiboak, aldaketekin irabazi eta galeretan – Negoziatzeko mantenduak – Beste batzuk														
Estaldura-deribatuak														
<b>Guztira</b>														

b) Arrazoizko balioan balioetsitako finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak, galera eta irabazien kontuan aldaketekin

Arrazoizko balioan aldaketaren zenbatekoa zehaztuko da, ekitaldian zehar duena eta izendatu denez geroztik pilatutako. Horrez gain, kalkulu horretarako erabilietako metodoa adieraziko da.

Estaldura-tresnekiko desberdinak diren finantza-tresna deribatuei dagokienez, tresnen izaerari buruzko informazioa emango da, eta zenbatekoari, egutegiari eta eskudiruaen fluxuen etorkizuneko ziurgabetasunari eragin diezaieketen baldintza garrantzitsuak zehaztuko dira.

«Beste finantza-aktibo batzuk, arrazoizko balioarekin eta aldaketekin galera eta irabazien kontuan» edo «Beste finantza-pasibo batzuk, arrazoizko balioarekin eta aldaketekin galera eta irabazien kontuan» kategorian finantza-aktiboak edo finantza-pasiboak izendatu badira, aukera horren erabileraren berri emango da, eta erregistro- eta balioespen-arauan xedatutako betekizunak betetzen direla zehaztuko da.

c) Birsailkapenak

Kontabilitate Plan Orokorren bederatzigarren erregistro- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera, finantza-aktibo bat birsailkatzen bada, eta arrazoizko balioa beharrean amortizatutako kostua balioesten bada, edo alderantziz, birsailkapen horri dagozkion zenbatekoen berri emango da, finantza-aktiboaren kategorien arabera. Horrez gain, justifikazio bat gaineratuko da.

d) Epemugen arabeko sailkapena

Epemuga zehatz bat edo zehazgarri bat duten finantza-aktiboaren eta finantza-pasiboaren kasuan, ekitaldia amaitu eta hurrengo bost urtetan, urtero iraungitzen diren zenbatekoen gaineko informazioa eman beharko da. Ohar horiek bereizita agertuko dira finantza-aktiboaren eta finantza-pasiboaren partida bakoitzean, balantze-ereduaren arabera.

e) Finantza-aktiboaren transferentziak

Finantza-aktiboak lagatzen direnean, eta horien parte batek edo bere osotasunean Kontabilitate Plan Orokorrean finantza-tresnetarako zehaztutako 9. erregistro- eta balioespen-arauaren 2. atalean jasotako balantzearen baja-baldintzak betetzen ez baditu, honako informazio hau emango da, aktibo moten arabera:

- Lagatako aktiboaren izaera.
- Jabetzari atxikitako arrisku eta onuren izaera.
- Lagatako aktiboaren kontabilitate-balioa, eta balantze bateratuan erregistratutako pasibo elkartuak
- Etengabeko inplikazioaren arabera aktiboak aitortzean, hasieran balantze bateratuan agertzen ziren aktiboaren kontabilitate-balioa, entitateak oraindik aitortzen dituen aktiboaren kontabilitate-balioa eta pasibo elkartuen kontabilitate-balioa.

f) Lagatako eta bermepetan onartutako aktiboak

Berme gisa emandako finantza-aktiboaren kontabilitate-balioa adieraziko da, eta motak zehaztuko dira, epeak eta berme-eragiketarekin lotutako baldintzak jakinaraziko dira.

Hirugarrenen bermepeko aktiboak mantenduz gero, horiek finantza-aktiboak izan ala ez, eta ez ordaintzerik gertatu ez arren horiek eskuratzea posible bada, honako hauen berri emango da:

- Bermepean jasotako aktiboaren arrazoizko balioa.
- Bermepean jaso den eta itzultzeko obligazioa dagoen edo itzultze-obligaziorik ez dagoen edozein aktiboren arrazoizko balioa.
- Taldeak bermepeko aktiboak erabiltzeko dituen epe eta baldintzak.

g) *Kreditu-arriskuak eragindako balioaren narriaduragatiko zuzenketak*

Finantza-aktibo mota bakoitzerako, kreditu-arriskuak eragindako narriaduragatiko galerak ordezkatzeko dituzten kontu zuzentzaileen mugimenduaren analisia.

h) *Ekitaldian zehar egindako negozio-konbinazio batean eskuratutako eta kobratu beharreko kontuak:*

- (i) kobratu beharreko kontuen arrazoizko balioa;
- (ii) kobratu beharreko kontratuzko zenbateko gordinak;
- (iii) kobratzea espero ez den eskudiruaren kontratuzko fluxuak eskuratzeko datan egindako balioespen onena.

Informazioa kobratu beharreko kontu mota nagusien arabera emango da: maileguak, zuzeneko finantza-errentamenduak eta kobratu beharreko beste edozein kontu mota.

i) *Ez ordaintzea eta kontratu-baldintzak ez betetzea*

Ekitaldiaren amaieran ordaintzeke dauden maileguei dagokienez, honako hauen berri emango da:

- Nagusiaren ez-ordaintzeen gaineko xehetasunak edo ekitaldian zehar sortu diren interesak.
- Ekitaldiaren amaieran ez ordaintzeagatik sortutako ez betetzeak egon diren maileguen kontabilitate-balioa.
- Ez ordaintzea gainditu den edo urteko kontuen aurkezpen-dataren aurretik maileguaren baldintzak birnegoziatu diren.

Ekitaldian zehar ez ordaintzeaz gaineko ez-beteterik egon bada, eta gertaera horrek mailegu-emaileari aurrerakina erreklamatzeko eskubidea ematen badio, zehaztutakoren antzeko informazioa emango da. Ez-betetzea zuzenduz gero, edo ekitaldia amaitu aurretik baldintzak birnegoziatuz gero, ez da informazio hori emango.

j) *Ezaugarri bereziak dituzten zorrak*

Talde bateragarriko enpresek ezaugarri bereziko zorrak dituztenean, zorren izaeraren berri emango da, eta beren zenbateko eta ezaugarriak zehaztuko dira. Taldeko enprekin edo enpresa elkartuekin diren zehaztuko dira.

### **16.2.2. Bateratutako galera eta irabazien kontuarekin eta ondare garbiarekin lotutako informazioa**

Honako hauen berri emango da:

- a) Kontabilitate plan Orokorren 9. erregistro- eta balioespen-arauan zehaztutako finantza-tresnen kategorietan sortutako galera edo irabazi garbiak.
- b) Interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta kalkulaturako finantza-irabaziak eta -gastuak.
- c) Finantza-aktibo mota bakoitzerako narriaduragatiko balioztapen-zuzenketen zenbatekoa, eta aktibo horiekin lotuta, galera eta irabazien kontuari egotzitako finantza-sarrerak.

### **16.2.3. Memorian gaineratu beharreko beste informazio batzuk**

a) *Estalduren kontabilitatea*

Kontabilitate-estaldura motaren arabera, egindako estaldura-eragiketen eta estaldura-tresna gisa izendatutako finantza-tresnen deskribapen xehatu bat eman beharko da. Horrez gain, ekitaldiaren amaieran dituzten arrazoizko balioak eta estaldutako arriskuen izaera zehaztuko dira. Batik bat, Kontabilitate Plan Orokorrean finantza-tresnen gainean jasotako erregistro- eta balioespen-arauan zehaztutako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko da.



Eskudiruaren fluxuen estalduretan, berriz, honako hauen berri emango da:

- a) Eskudiruaren fluxuak gertatzea espero den ekitaldiak eta galera eta irabazien kontu bateratuari eragiten dioten ekitaldiak.
- b) Ekitaldian zehar aitortutako ondare garbiaren zenbatekoa eta ondare garbitik galera eta irabazien kontu bateratuari egotzitako zenbatekoa. Galera eta irabazien kontu bateratuko partida bakoitzean barne hartutako zenbatekoak zehaztu dira.
- c) Ekitaldian zehar ondare garbiari kendutako zenbatekoa eta erosketa-prezioaren edo aktibo edo pasibo ez finantzario baten kontabilitate-balioaren hasierako balioespenean barne hartu den zenbatekoa, estalitako partida oso gertagarria den transakzio aurreikusia denean.
- d) Aurrez estalduren kontabilitatea aplikatu zaien baina gertatzea espero ez diren transakzio guztiak.

Arrazoizko balioa duten estalduren kasuan, estaldura-tresnaren galera edo irabazien zenbatekoaren berri emango da, eta estalitako arriskuari egotzi ahal zaizkion partida estaliaren galera edo irabaziak zehaztu dira.

Horrez gain, eskudiruaren fluxuen estaldurarekin eta atzerriko negozioetako inbertsio garbiaren estaldurarekin lotuta, galera eta irabazien kontu bateratuan erregistratutako eraginkortasun eza adieraziko da.

#### b) *Arrazoizko balioa*

Finantza-tresna mota bakoitzaren arrazoizko balioa adieraziko da, eta dagokion kontabilitate-balioarekin konparatuko da.

Ondorengo kasuetan, ez da beharrezkoa izango arrazoizko balioa adieraztea:

- a) Kontabilitate-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen denean; esaterako, epe laburreko merkataritza-eragiketengatik kreditu eta zorren kasuan.
- b) Merkatu aktibo batean kotizatu gabeko ondare-tresnak direnean, eta horien azpiko deribatuen kostua 9. erregistro- eta balioespen-arauaren arabera balioesten denean.

Kasu horretan, gertaera horren berri eman eta finantza-tresna deskribatuko da, bere kontabilitate-balioa zehaztu da, eta bere arrazoizko balioa modu fidagarrian zehaztea eragozten duten kausak azalduko dira. Era berean, besterentzeko asmorik dagoen eta noiz zehaztu da.

Ekitaldian zehar finantza-tresnaren balantze bateratua bajaran emanez gero, gertaera horren berri emango da, eta baja ematerako unean duen kontabilitate-balioa eta aitortutako irabazi edo galeraren zenbatekoa zehaztu dira.

Horrez gain, finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen arrazoizko balio osoa edo parte bat merkatu aktiboetako prezio kotizatuen erreferentzia gisa hartzen den edo balioespen-teknika bat erabiliz balioesten den adieraziko da. Azkeneko kasu honetan, arrazoizko balioa balioesteko kontuan hartutako hipotesi eta metodologiak zehaztu dira, finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen moten arabera.

Erregistratutako edo memorian zehaztutako arrazoizko balio guztien gainean edo parte baten gainean, hipotesietan oinarritutako balioespen teknikak erabiliz, merkatu-baldintzetan babesten ez direla eta eskuragarri dauden merkatu ikusgarrien datuetan babesten ez direla zehaztu da. Arrazoizko balioa paragrafo honetan jasotakoaren arabera zehaztua izan bada, ekitaldiko galera eta irabazien kontuari egotzitako arrazoizko balioaren aldaketaren zenbatekoa jakinaraziko da.

#### c) *Inbertsioak ondare-tresnetan*

1 eta 2 oharretan barne hartu ez diren sozietateen izena eta helbidea. Talde bateragarria osatzen duten sozietateak dira, zuzenean edo beren izenean (baina euren kontura) jarduten duten pertsonen izenean, kapitalaren %5a baino gutxiago dutenak. Kapitalen duen partaidetza eta boto-eskubideetan duen portzentajea zehaztu da, baina ondare garbiaren zenbatekoa eta sozietatearen kontu onartuek azkeneko ekitaldian izan duten emaitza ere. Kontu bateratuek adierazi beharreko irudi zehatzarekiko interes gutxiesgarria duten kasuan, posible izango da informazio horiek ez aipatzea.

Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 155. artikulua betez, zuzenean edo zeharka %10eko partaidetza baino gehiago duten sozietateei egindako jakinarazpenak.

#### d) *Beste informazio batzuk*

- a) Finantza-aktiboak erosteko konpromiso finkoak, finantzaketa-iturri aurreikusgarriak eta salmenta-konpromiso finkoak.
- b) Kontabilitate Plan Orokorreko finantza-tresnei dagokien erregistro- eta balioespen-arauaren 5.4. atalaren arabera, aitortzen eta balioesten diren aktibo ez-finantzarioen erosketa- edo salmenta-kontratuak.
- c) Finantza-aktiboetara eragiten dieten beste gertaera garrantzitsu batzuk: auziak, bahiturak, etab.

- d) Deskontu-lerroetan eskuragarri dagoen zenbatekoa, talde bateragarriko enpresei emandako kredituen polizak, eta horiei dagozkien mugak. Erabilitako parte zehaztu beharko da.
- e) Benetako bermea duten zorren zenbatekoa, beren forma eta izaera zehaztuta.

### **16.3. Finantza-tresnen izaera eta arrisku mailari buruzko informazioa**

#### **16.3.1. Informazio kualitatiboa**

Arrisku mota bakoitzerako: kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta merkatu-arriskua (azkeneko horrek aldaketa-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua eta beste prezio-arrisku batzuk hartzen ditu barne). Arrisku maila zehaztuko da eta nola sortzen den azalduko da. Era berean, arriskua kudeatzeko xedeak, politikak eta prozedurak zehaztuko dira eta neurtzeko erabilitako metodoak adieraziko dira.

Ekitaldi batetik bestera aldaketarik egonez gero, horien berri eman beharko da.

#### **16.3.2. Informazio kuantitatiboa**

Arrisku mota bakoitzerako, honako hauek aurkeztuko dira:

- a) Ekitaldiaren amaieran dagoen arrisku mailari dagokion informazio kuantitatiboaren laburpen bat. Informazio hori inplikaturako sozietatearen administrazio-kontseiluak edo gobernu-organo baliokideak erabilitako barne-informazioan oinarrituko da.
- b) Arrisku-kontzentrazioei buruzko informazioa. Kontzentrazioa zehazteko modua, kontzentrazio bakoitzari dagozkion ezaugarri komunak (kokalekua, dibisa, merkatua, kontrapartida, etab.) eta ezaugarri horiek partekatzen dituzten finantza-tresnei atxikitako arriskuen zenbatekoa zehaztuko dira.

### **16.4. Funtz propioak**

Ekitaldiaren mugimenduaren analisia multzo honetan barne hartutako partidetan. Gehikuntzen jatorriak eta gutxitzeen kausak zehaztu beharko dira.

«Erreserbak» epigrafearen banakapena, honako xehetasun maila honekin:

Erreserbak:

- Sozietate nagusiaren erreserbak, honako hauek bereizita: erreserba banagarriak, ez-banagarriak eta aurreko ekitaldietako emaitzak.
- Erreserbak sozietate bateratuetan.
- Erreserbak baliokidetasunean jarritako sozietateetan.

Betiere, honako informazio hau eman beharko da:

- a) Ekintza- edo partaidetza-kopurua sozietate nagusiaren kapitalean eta horietako bakoitzaren balio nominala, klaseen arabera bereizita. Horrez gain, emandako eskubideak eta eduki ditzaketen murrizketak zehaztuko dira. Horrez gain, egiteke dauden ordainketa guztietan, galdagarritasun-data zehaztuko da. Kapitalarekiko desberdinak diren beste ondasun-tresna batzuetan ere, informazio hori emango da.
- b) Sozietate nagusiaren kapital handitzea, harpidetu beharreko akzio- edo partaidetza-kopurua, beren balio nominala, jaulkipen-hobaria, hasierako gastua, eta dagozkion eskubide eta murrizketak zehaztuta. Horrez gain, kideen, akziodunen eta obligaziodunen aldeko lehentasunezko harpidetza-eskubiderik dagoen eta harpidetzarako emandako epea adieraziko da.
- c) Administrazioaileek zirkulazioan jartzeko sozietate nagusiaren akziodunen batzordeak baimendutako kapitalaren zenbatekoa. Baimena noiz arte hedatzen den adierazi beharko da.
- d) Fundatzailearen parteei dagozkien eskubideak, gozamen-bonuak, obligazio bihurturak eta sozietate nagusiaren antzeko finantza-tresnak, dagozkien eskubideen kopurua eta hedapena zehaztuta.
- e) Sozietate nagusiaren erreserben erabilgarritasuna murrizten duten berriazko egoerak.
- f) Baterakuntzan integraturako sozietateen esku edo horien izenean baina beren kontura jarduten duten hirugarrenen esku dauden sozietate nagusiaren akzio edo partaidetzen kopurua, balio nominala eta eskuratzeko batez besteko prezioa. Aurreikusitako azken xedea zehaztu beharko da. Horrez gain, bermepean onartutako gizarte nagusiaren akzioei dagozkien kopurua, balio nominala eta erreserbaren zenbatekoa zehaztuko dira. Dagokien kasuetan, kapitalarekiko desberdinak diren beste ondare-tresna batzuen berri emango da.

- g) Zuzenean edo filialen bidez taldetik kanpoko edo taldearekin lotutako beste enpresa batek eskuratutako sozietate nagusiaren kapitalaren partea %10 edo handiagoa denean.
- h) Kotizatzeako onartutako taldearen sozietateen akzioak.
- i) Sozietate nagusiak bere akzioen gainean jaulkitako eta funts propio gisa hartu beharreko aukerak eta beste kontratu batzuk. Baldintzak eta zenbatekoak zehaztuko dira.
- j) Sozietate nagusiaren kideek edo jabeek emandako diru-laguntzei, emariei eta legatuei dagozkien berariazko egoerak.
- k) Ekitaldian, Balio Handitzearen Erreserbaren kontuak (16/2012 Legea) izandako mugimendua, honako xehetasun hauek adieraziz:
  - Hasierako saldoa.
  - Ekitaldiko igoerak.
  - Jaitsierak eta kapitalera edo beste kontusail batzuetara ekitaldian eginiko intsuldaketak, transferentziaren izaera azalduz.
  - Amaierako saldoa.

#### **16.5. Balio-aldaketengatiko beste doikuntza batzuk**

II epigrafearen banakapena. «Balio-aldaketengatiko beste doikuntza batzuk», honako xehetasun maila honekin:

Doikuntzaren izaera:

- Salmentarako erabilgarri dauden finantza-aktiboak.
- Estaldura-eragiketak.
- Balio-aldaketengatiko beste doikuntza batzuk.

Doikuntzaren jatorria:

- Sozietate nagusia.
- Sozietate bateratuak.
- Baliokidetasunean jarritako sozietateak.

#### **17. IZAKINAK**

1. Izakinen banakapena, jarduera-talde homogeneoen eta amaitze- mailaren arabera, narriaduragatiko balioztapen-zuzenketak zehaztuta.
2. Honako hauen berri emango da:
  - a) Izakinen narriaduragatik egindako balioztapen-zuzenketak eragin dituzten egoerak edo gertakizunak, eta hala badagokio, ekitaldian aitortutako zuzenketa horien itzulketa eta beren zenbatekoa.
  - b) Izakinen narriaduragatiko balio-zuzenketei buruz jarraitutako balorazio-irizpideak, bai eta zuzenketon zenbatekoa ere eta, kasuan, kontabilizatu balira, atzera itzulketena ere bai.
  - c) Izakinen arrazoizko balioaren eta balio bihurtu garbiaren artean alderik balego, hura justifikatuko duen informazioa. Balio bihurtu garbia arrazoizko balioa baino txikiagoa denean, enpresak narriaduragatiko galera kontabilizatuko du balio bihurtu garbia izakinen liburu-balioa baino txikiagoa bada. Halako kasuetan, aplikaturiko irizpide eta balio-zuzenketa eragin duten zirkunstantziei buruzko informazio esanguratsu guztia sartu beharko da memorian.
  - d) Urtebete baino gehiagoko ekoizpen-zikloko izakinetan, ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta berau zehazteko erabilitako irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentziekin jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.
  - e) Erosketa- eta salmenta-konpromiso finkoak, etorkizuneko kontratuei buruzko informazioa eta izakinen gaineko aukeren gaineko informazioa.

- f) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatuen ondorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuengan duten eragin kuantitatiboa adieraziz.
- g) Beharrezkoa denean, modu egokian justifikatu beharko da kostu estandarren eta txikizkarien metodoaren aplikazioa izakinen baloraziorako, balorazio hori ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenean ezarritakoa aplikatu izanez gero ondorioztatu izango litzatekeen balorazioarekiko nabarmenki desberdina ez den neurrian.
- h) Baterako ekoizpenari kostuak esleitzeko erabilitako irizpideak eta adierazleak.
- i) Izakinak baloratzeko erabilitako balio-esleitze metodoak eta metodo horiek aplikatzeko erabilitako epeak.
- j) Salmenten itzuleren eta erosketen itzuleren eragina izakinen balorazioan.
- k) Faktura jaso ondoren gertatutako eskaeraren baldintzen ez-betetzearen ondorioa diren erosketen arabera "rappel" eta bestelako deskontu eta antzekoen eragina izakinen balorazioan.
- l) Mugak bermeen, pignorazioen, fidantzen eta beste arrazoi analogo batzuen arabera izakinen eskuragarritasunean. Eragindako partidak, zenbatekoak eta behin-behineko hedapena zehaztu beharko dira.
- m) Titulartasunari, eskuragarritasunari edo izakinen balioespenari eragiten dioten beste edozein arrazoi garrantzitsu: auziak, asteburuak, bahiturak, etab.

## 18. ATZERRIKO MONETA

1. Atzerriko monetako aktibo- eta pasibo-elementuen zenbateko globala, moneten arabera sailkatutako aktibo eta pasibo garrantzitsuenen banakapena zehaztuta. Horrez gain, erosketa, salmenta eta jaso eta eskaintako zerbitzuen zenbatekoak zehaztuko dira.
2. Honako informazio hau emango da:
  1. Baterakuntzan sartutako enpresen kasuan, moneta funtzional bat baino gehiago erabiliz gero, aktibozen zenbatekoa, negoziozifra eta moneta funtzional bakoitzean adierazitako emaitzak zehaztu beharko dira.
  2. Atzerriko negozioen moneta funtzionala; urteko kontuen aurkezpeneko monetarekiko desberdina denean, inbertsio garbia zehaztuta.
  3. Baterakuntzan integratutako sozietateren baten edo atzerriko negozio garrantzitsuren baten moneta funtzionalean aldaketa gertatzen denean, gertaeraren berri emango da eta aldaketaren arrazoia zehaztuko da.
  4. Ekitaldiaren emaitzan aitortutako aldaketa-desberdintasunen zenbatekoa, finantza-tresnen arabera; denboraldian zehar likidatu diren transakzioei dagozkienak eta ekitaldiaren amaieran bizirik edo iraungitzeke daudenak bereizita. Arrazoizko balioan balioetsitako eta galera eta irabazien kontuan aldaketak dituzten finantza-tresnei dagozkienak salbuespenak izango dira.
  5. Ondare garbiarekiko bereizitako osagai gisa sailkatutako bihurketa-desberdintasunak, «Bihurketa-desberdintasunak» epigrafearen barruan. Horrez gain, ekitaldiaren hasieran eta amaieran zenbateko horien arteko desberdintasuna berdinkatuko da.
  6. Baterakuntzan integratutako sozietateak edo atzerriko negozioak inflazio-tasa altuen mende daudenean, honako hauen berri emango da:
    - a) Moneta funtzionalaren erosahalmenean aldaketak egiteko urteko kontuak doitzea, eta ondorioz, ekitaldiaren amaieran moneta-unitate arruntean adierazita egotea.
    - b) Prezioen indize orokorraren identifikazioa eta balioa ekitaldiaren amaieran, eta bere mugimendua ekitaldi honetan eta aurrekoan.

## 19. EGOERA FISKALA

### 19.1. Mozkinen gaineko zergak

Ekitaldiko irabazi eta gastuen zenbateko garbiaren eta zerga-oinarriaren arteko desberdintasunaren azalpena (emaitza fiskala). Xede honekin, ondorengo kontziliazioa gaineratuko da, Kontabilitate Plan Orokorraren 13. erregistro- eta balioespen-arauaren arabera behin-behinekotzat identifikatzen ez diren magnitudeen arteko desberdintasunak kontuan hartuta. Desberdintasun iraunkor gisa izendatuko dira.

**EKITALDIKO IRABAZI ETA GASTUEN ZENBATEKO GARBIAREN ETA  
MOZKINEN GAINEKO ZERGAREN ZERGA-OINARRIAREN KONTZILIAZIOA**

	Irabazi eta galeren kontua		Zuzenean ondare garbiari egotzitako irabazi eta gastuak		Erreserbak		Gutzira
	Gehikuntzak (Ge)	Gutxitzeak (Gu)	(Ge)	(Gu)	(Ge)	(Gu)	
Ekitaldiko irabazi eta gastuen saldoa							
Sozietateen gaineko zerga							
Desberdintasun iraunkorrak: – banakako sozietateenak – kontsolidazioengatiko doikuntzenak							
Behin-behineko desberdintasunak: – banakako sozietateenak • jatorria ekitaldian dutenak • jatorria aurreko ekitaldietan dutenak							
– kontsolidazioengatiko doikuntzenak • jatorria ekitaldian dutenak • jatorria aurreko ekitaldietan dutenak							
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa							
Zerga-oinarria (emaitza fiskala)							

Mozkinen gaineko zergen gastu/irabaziaren eta aitortutako irabazi eta gastu guztiei aplikagarri zaizkien zerga motak biderkatuz lortutako emaitzaren arteko azalpena eta kontziliazioa. Galera eta irabazien kontuko saldoa bereizi beharko da.

Horrez gain, honako informazio hau eman beharko da:

1. Hala badagokio, zergak baterakuntza fiskaleko erregimenean ordaintzen dituzten taldeko sozietateak identifikatzea.
2. Gastu edo irabazien banakapena, mozkinen gaineko zergen arabera. Irabazi eta galeren kontuaren emaitzei egozten zaizen zerga arrunta eta geroratutako zergen aldaketa bereizi beharko dira (etengabeko eragiketei dagokiena eta etendako eragiketei dagokiena berezita). Horrez gain, zuzenean ondare garbiari egozten zaiona adieraziko da, aitortutako irabazi eta gastuen egoeraren epigrafe bakoitzari eragiten diona berezita.
3. Geroratutako zergekin lotuta, desberdintasuna xehatu beharko da, eta aktiboaren (behin-behineko desberdintasunak, zerga-oinarri negatiboengatiko kredituak eta beste kreditu batzuk) eta pasiboaren (behin-behineko desberdintasunak) arteko desberdintasuna zehaztu beharko da.
4. ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenean aurreikusitako salbuespenen arabera, denbora-diferentzia zergapegarrien ondorioz zerga gerotuen pasiboak kontabilizatzen ez direnean, horien existentziaren berri eman beharko da eta baita kontabilizatu ez diren pasiboaren zenbatekoaren berri ere.
5. Balantze bateratuen geroratutako zergagatiko aktiboa erregistratu ez denean, behin-behineko desberdintasun kengarrien zenbatekoa eta aplikazio-epea, zerga-oinarri negatiboak eta beste kreditu fiskal batzuk.
6. Mendeko erakundeetan, erakunde elkartuetan eta baterako negozioetan burututako inbertsioen ondoriozko denbora-diferentzia zergapegarrien zenbatekoa, baldin eta dagokion zerga gerotuen pasioa balantze bateratuen erregistratu ez bada, ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenaren seigarren arauaren 4. atalean xedatutakoaren arabera.
7. Geroratutako zergagatiko aktiboaren zenbatekoa, aitortutako erabilitako ebidentzia zehaztuta. Hala badagokio, zerga-plangintza zehaztu beharko da, aktiboa zerga-oinarriaren behin-behineko desberdintasunen itzulketari dagokiona baino etorkizuneko irabazi handiagoen mende dagoenean, edo geroratutako zergagatiko aktiboarekin lotutako herrialdean galerak egon direnean, nahiz ekitaldi honetan edo aurrekoan. Zehazki, enpresak uste badu hamar urtetik gorako epean zerga gerotuen aktiboak berreskuratzea posible delako presuntzioa ezeztatzen duten frogak badirela, uste hori zertan oinarritzen den adierazi beharko da xehetasun guztiekin.
8. Ekitaldian zehar denbora-diferentzien ondoriozko zerga gerotuen aktiboak, konpentsatu beharreko galera fiskalak edo erabili eta erregistratu ez diren eta aurreko ekitalditik datozten bestelako kenkari edo abantailak sortzen direnean, sorrera hori eragin duen egoera azalduko da aktibo horiek balantzean erregistratu ez zirenean zegoen egoerarekin alderatuz. Era berean, kenkarien ondoriozko kredituak eta bestelako onura fiskalak erregistratu badira eragiketa baten ondorioz eta onura horien aplikazio eraginkorra jarduera jakin bat burutzearen menpe balego, informazio hori txostenean adieraziko da.

9. Ekitaldian zehar aplikatutako pizgarri fiskalekin lotutako konpromisoen izaera eta zenbatekoa, hala nola, mozkinak, kenkariak eta zenbait diferentzia iraunkor, eta baita kentzeko zain dauden ere. Zehazki, periodifikatu diren pizgarri fiskalen berri emango da, ekitaldiari egotzitako zenbatekoa eta egozteke dagoen zenbatekoa adieraziz. Informazio horrek barne izango du periodifikaziorako erabilitako irizpideak, bai diferentzia iraunkorra gertatzen den edo kenkariak eta bestelako abantaila fiskalak aplikatzen diren ekitaldian, nahiz periodifikazioa amaitu arteko ondorengo ekitaldietan. Halaber, txostenean jakinaraziko da izaera substantiboko edozein egoera, ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenean aurreikusitako periodifikazioarekin loturarik badu.
10. Horrez gain, jurisdikzio fiskalei ordaindu beharreko zerga jakinaraziko da, atxikipenak eta egindako konturako ordainketak xehatuta.
11. Gainerako behin betiko desberdintasunak identifikatuko dira, beren zenbatekoa eta izaera adierazita.
12. Espero den batez besteko karga-tasa zehazteko erabilitako estimazio eta kalkulu guztien berri emango da, egungo balioen eta etorkizuneko balio estimatuen arteko aldaketak eta aldeak justifikatuz. Halaber, garrantzi erlatiboaren printzipioari jarraituz, erabilgarri dagoen azken batez besteko karga-tasa erabiltzea erabakitzen denean, erabaki hori hartzearen zergatiak azaldu beharko dira, edozein kasutan ere, zerga gerotuen aktiboen eta pasiboen balorazioari eragin diezaioketela uste den etorkizuneko gertaeren berri emanez.
13. Aurreko ekitaldiekin alderatuta, aplikagarriak diren zergetan egon diren aldaketak. Horrek aurreko ekitaldietan erregistratutako geroratutako zergetan izango duen efektua zehaztuko da.
14. Mozkinen gaineko zergatik ondorioztatutako horniduren gaineko informazioa, izaera fiskaleko kuoten gaineko informazioa eta erregistratutako aktibo eta pasibo fiskalei eragiten dioten araudi fiskalaren aldaketagatik ekitaldia amaitu ostean jazotako gertakarien gaineko informazioa. Batik bat, egiaztatzeke dauden ekitaldien gaineko informazioa emango da.
15. Zerga-araudiak ezarritako erregimen bereziren bat aplikatzen duten erakundeek dagokion erregimenari buruzko informazioa aurkeztu beharko dute, erregimena aplikatzeko baldintzak bete direla adieraziz eta, kasuaren arabera, baldintza horiek betetzeari utzi diotela, egoera horrek finantza-egoeran duen eragina zehaztuz. Zehazki, gardentasun fiskalean oinarritutako erregimen bereziren batean dauden erakundeak direnean, jakinarazi beharko dira bazkideei egotzitako zerga-oinarriak, kenkariak eta kuotaren hobariak, atxikipenak, zatikako ordainketak, konturako diru-sarrerak, gardentasun fiskala aplikatzen duen sozietateak ordaindutako kuota, eta baita erakunde horri egotzitako bestelako kuotak ere.
16. Zerga-finkapeneko erregimeneko erakundeen kasuan, talde fiskaleko sozietate bakoitzak txostenean sartu beharko du, ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenean xedatutakoaren arabera derrigorrezkoak diren adierazpenez gain, zerga-erregimen berezi honi buruzko beste edozein egoera aipagarri, zehazki adieraziz:
  1. Erregimen berezi honen ondorioz sortutako diferentzia iraunkorrak eta denbora-diferentziak, denbora-diferentzien kasuan sortu ziren ekitaldia eta ekitaldi bakoitzean burututako berrikusketa adieraziz.
  2. Sozietate-taldeen erregimena aplikatzearen ondoriozko zerga-oinarri negatiboen konpentsazioak.
  3. Sozietate-taldeen erregimenak sortutako zerga-efektuaren ondorioz taldeko enpresen arteko kreditu eta zor nagusien banantzea.
17. Atzerrian zergak ordaindu behar dituzten sozietateek sozietatearen mozkinak zergapetzen dituzten atzerriko zergen berri eman beharko dute, erregimen fiskal aplikagarriaren arabera azalduz sozietatearen urteko kontuei eragiten dieten egoera guztiak, horretarako Espainiako Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako informazio-eskema bera jarraituz.
18. Egoera fiskalarekin lotutako beste edozein egoera garrantzitsuren gaineko informazioa emango da.

## 19.2. Beste zerga batzuk

Zergekin lotutako edozein egoera garrantzitsuren berri emango da; batik bat, izaera fiskaleko kuoten eta egiaztatzeke dauden ekitaldien berri emango da.

## 20. IRABAZI ETA GASTUAK

1. Irabazi eta galeren kontu bateratuko 4.a) eta 4.b) partidak xehatuko dira: «salgaien kontsumoa» eta «lehengaien eta beste materia kontsumigarri batzuen kontsumoa». Erosketen eta izakin-aldaketen arteko bereizketa egingo da. Horrez gain, erosketak nazionalak, komunitate barruko erosketak eta inportazioak bereiziko dira.

Irabazi eta galeren kontu bateratuko 6.b) partida xehatuko da: «gizarte-kargak». Pentsioetarako eta beste gizarte-karga batzuetarako ekarpen eta hornidurak bereiziko dira.

2. Ondasunen salmentari dagokion zenbatekoa eta ondasun ez monetarioek eta zerbitzuen trukeak eragindako zerbitzu-prestazioen eta ondasun-salmenten zenbatekoa.
3. «Beste emaitza batzuk» partidari jasotako taldeko enpresen jarduera normaletik kanpo sortutako emaitzak.

## 21. HORNIDURAK ETA ARRISKUAK

1. Balantze bateratuan aitortutako horniduren gainean, honako hauek adierazi beharko dira:

a) Balantze bateratuko partida bakoitzaren mugimenduaren analisisa ekitaldian zehar. Honako hauek zehaztu beharko dira:

- Hasierako saldoa.
- Hornidurak.
- Aplikazioak.
- Egindako beste doikuntza batzuk (negozio-konbinazioak, etab.).
- Amaierako saldoa.

Atal honetan, ez da beharrezkoa izango konparaziozko informazioa gaineratzea.

b) Ekitaldian zehar denboraren iraganak eragindako deskontu-motekin eguneratutako saldoetan egon diren gehikuntzen berri emango da. Horrez gain, deskontu motan egon diren aldaketen berri emango da.

Atal honetan, ez da beharrezkoa izango konparaziozko informazioa gaineratzea.

- c) Bere gain hartutako obligazioaren izaeraren deskribapen bat.
- d) Zenbatekoak balioesteko aplikatutako kalkuluen balioespen eta prozeduren deskribapen bat, eta balioespen horietan ager daitezkeen ziurgabetasunak. Hala badagokio, egin behar izan diren doikuntzak justifikatuko dira.
- e) Dirua itzultzeko eskubideei dagozkien zenbatekoak zehaztuko dira, eta eskubide horien bidez balantze bateratuko aktiboan aitortu diren kopuruak adieraziko dira.

2. Baliabideen irteerarik egon ezean, arrisku mota bakoitzerako, honako hauek adieraziko dira:

- a) Arriskuaren deskribapen labur bat.
- b) Aurreikusitako eboluzioa, eta zein faktoreren mende dagoen.
- c) Finantza-egoera bateratuetan egon daitezkeen efektu posibleen balioespen kuantifikatua, eta hori egitea posible ez bada, ezintasunaren eta ziurgabetasunaren gaineko informazioa emango da, gehienezko arriskuak eta gutxieneko arriskuak xehatuta.
- d) Dirua itzultzeko eskubidearen berri emango da.
- e) Hornidura bat modu fidagarrian balioetsi ezin izan bada eta balantze bateratuan erregistratu ezin izan bada, balioespen hori ez egitearen arrazoiak azalduko dira.

3. Egiatzapen-irizpideak betetzen ez dituzten aktiboetatik sortutako mozkinen eta errendimendu ekonomikoen sarrera posible den kasuan, honako hauek adieraziko dira:

- a) Deskribapen labur bat.
- b) Aurreikusitako eboluzioa, eta zein faktoreren mende dagoen.
- c) Balioespenerako erabilitako irizpideen gaineko informazioa, horrek finantza-egoeretan eragin ditzakeen efektuak, eta egitea posible ez den kasuetan, ezintasunaren eta ziurgabetasunaren gaineko informazioa.

4. Ezohiko kasuetan, auziaren bitartekotza hirugarren baten bidez eginda, aurreko ataletan eskatutako informazioak taldearen egoerari kalte egin badiezaioke, informazioa ematea ez da beharrezkoa izango, baina auziaren izaera deskribatu eta informazioa eman ez izanaren arrazoiak azalduko dira.

## 22. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Honako hauen gaineko informazioa emango da:

- a) Ingurumen-inpaktua txikiagotzeko eta ingurumena babesteko eta hobetzeko ibilgetu materialari gaineratutako sistema, ekipo eta instalazioen deskribapen eta ezaugarriak emango dira. Beren izaera, xedea, kontabilitate-balioa eta pilotutako amortizazioa xehatuko dira, betiere, banan-banan. Horrez gain, narriaduragatiko balioespen-zuzenketen berri emango da, ekitaldian aitortutakoak eta pilotutakoak bereizita.

- b) Ekitaldian ingurumena babesteko eta hobetzeko egindako gastuak. Beren xedea adieraziko da.
- c) Ingurumen-ekintzetarako hornidurekin estalitako arriskuak, garatzen ari diren auzien, kalte-ordainen eta beste batzuen gaineko arriskuei aipamen berezia eginda. Hornidura bakoitzerako, 21. oharren 1. atalean balantze bateratuan aitortutako horniduretarako informazioa emango da.
- d) Ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako arriskuak, 21. oharren 2. atalean eskatutako informazioa kontuan hartuta.
- e) Ingurumen-arrazoiengatik ekitaldian zehar eginiko inbertsioak.
- f) Hirugarrenengandik jaso beharreko konpentsazioak.

### **23. EPE LUZEKO ORDAINKETAK PERTSONALARI**

1. Ekarpertsonalari edo zehaztutako prestazioari epe luzera ordainketak egitean, plan motaren deskribapen orokor bat gaineratu beharko da.
2. Prestazio zehatzeko pertsonalaren epe luzeko ordainketen kasuan, 21. oharren 1. atalean balantze bateratuan aitortutako horniduretarako eskatutako informazioa gaineratuko da, eta honako hauek zehaztuko dira:
  - a) Balantze bateratuan aitortutako aktibo eta pasiboen berdinkatzea.
  - b) Planari atxikitako aktiboen arrazoizko balioan barne hartutako partiden zenbatekoa.
  - c) Erabilitako hipotesi aktuarial nagusiak eta beren balioak ekitaldiaren amaieran.

### **24. TRANSAKZIOAK ONDARE-TRESNETAN OINARRITUTAKO ORDAINKETEKIN**

Taldeko sozietateek jaulkitako ondare-tresnetan oinarritutako ordainketa-akordioetarako, honako hauek adierazi beharko dira:

1. Ondare-tresnetan oinarritutako ordainketa-akordioen deskribapena. Onuraduna zehaztu beharko da. Akordio horiek antzeko ezaugarriak edukiz gero, aldi berean guztien berri eman ahalko da; betiere, informazio horrek akordioen izaera eta hedapena ulertzen laguntzen badu.
2. Ondare-tresnetan oinarritutako ordainketak dituzten transakzioetan pasiboak erregistratu behar direnean, 21. oharren 1. atalean balantzean aitortutako horniduretarako eskatutako informazioa gaineratuko da.
3. Transakzioak akzioen gaineko aukeretan oinarritutako ordainketak direnean, honako hauen berri emango da:
  - a) Ekitaldiaren hasieran eta amaieran dauden aukera kopurua eta ekitaldiko prezioen batez besteko haztatua. Horrez gain, denbora horretan emandakoak eta baliogabetutakoak, eta ekitaldian zehar iraungitakoak. Azkenik, denboraldiaren amaieran erabil daitezkeen gaineko informazioa emango da.
  - b) Ekitaldian zehar erabilitako akzioen gaineko aukeretarako, akzioek ekitaldian duten batez besteko prezio haztatua zehaztuko da, eta akzioak denboraldian duen zehar duen batez besteko prezio haztatua adierazi ahalko da.
  - c) Ekitaldiaren amaieran dauden aukeretarako, ekitaldiko prezioen tartea eta horiei gelditzen zaien bizitzaren batez besteko haztatua.

Ekitaldian zehar jasotako ondasun eta zerbitzuen arrazoizko balioa nola zehaztu den edo emandako ondare-tresnen arrazoizko balioa nola zehaztu den adierazi beharko da.

Ondare-tresnetan oinarritutako ordainketak dituzten transakzioek finantza-egoeran eta taldearen emaitzetan izan duten efektua zehaztuko da.

4. Jasotako ondasun eta zerbitzuen arrazoizko balioa erregistro- eta balioespen-arauan ezarri bezala modu fidagarrian balioestea posible ez denean, gertaera horren berri emango da eta ezintasunaren arrazoiak emango dira.
5. Negozio-konbinazio batengatik borondatez edo derrigorrez langileekin eskuratutako enpresaren ondare-tresnetan oinarritutako ordainketa-konpromisoak eskuratzailaren ondare-tresnetan oinarritutakoengatik ordezkatzeko direnean, konbinazioaren kostu gisa kontabilizatu diren akordioak eta bereizitako transakzio gisa aitortu direnak zehaztu beharko dira.

### **25. DIRU-LAGUNTZAK, EMARIAK ETA LEGATUAK**

Honako hauen berri emango da:

1. Balantze bateratuan agertzen diren diru-laguntza, emari eta legatuen zenbatekoa eta ezaugarriak, eta galera eta irabazien kontu bateratuari egozten zaizkionak.



2. Balantze bateratuko azpitaldearen edukiaren mugimenduaren analisisa, hasierako saldoa eta amaierako saldoa zehaztuta, eta gehikuntzak eta gutxitzeak adierazita. Batik bat, jasotako zenbatekoak eta itzultzeak xehatuko dira.
3. Diru-laguntzen, emarien eta legatuen jatorriak zehaztuko dira, eta lehenengoan kasuan, horiek eman dituen erakunde publikoa adieraziko da. Hala, egilelea tokiko, estatuko edo nazioarteko Administrazioa den zehaztuko da.
4. Diru-laguntzekin, emariekin eta legatuekin lotutako baldintzak betetzen diren edo ez zehaztuko da.
5. Jatorria sozietate nagusian, sozietate bateratuetan eta baliokidetasunean jarritako sozietateetan duten diru-laguntzak, emariak eta legatuak banakatuko dira.

## **26. SALMENTARAKO MANTENDUTAKO EZOHIKO AKTIBOAK ETA ETENDAKO ERAGIKETAK**

1. Ekitaldian salmentarako mantendutako ezohiko aktibo gisa aitortu diren mendeko sozietateen, sozietate taldeaniztunen eta sozietate elkartuen zerrenda.
2. Ekitaldian salmentarako mantendutako ezohiko aktibo gisa izendatzeko irizpidea betetzeari utzi dioten mendeko sozietateen, sozietate taldeaniztunen eta sozietate elkartuen zerrenda. Birsailkapenak irabazi eta galeren kontuan eta taldearen ondare garbian eragindako inpaktua zehaztuko da, ohar honen 4.c) puntuan eskatutako informazioaren arabera.
3. Etendako jarduera gisa izendatzen den jarduera bakoitzean, honako hauek adierazi behar dira:
  - a) Etendako jardueren zergaren aurretik galera eta irabazien kontu bateratuan aitortutako irabaziak, gastuak eta emaitzak.
  - b) Aurreko emaitzarekin lotuta, mozkinen gaineko zergengatikoa gastua.
  - c) Etendako jardueren ustiapen-, inbertsio- eta finantzaketa-jarduerari dagokien eskudirua fluxu garbiak.
  - d) Aipatutako jarduerari atxikitako ondare-elementuen deskribapen xehatua, beren zenbatekoa eta sailkapena eragin duten egoerak zehaztuta.
  - e) Aurrez aurkeztutako zenbatekoei ekitaldian egindako doikuntzak; hain zuzen, etendako jardueren gainean egindako eta zuzenean besterentzearekin eta beste bide batez eskuratzearekin lotutako doikuntzak. Hala badagokio, besterentzea gertatu ez izanaren arrazoiak.
  - f) Aurrez etendako jarduera gisa aurkeztu diren baina ondoren besterenduak izan ez diren jardueren gaineko emaitzak.
4. Ezohiko aktiboan kasuan edo salmentarako mantendutako elementuen talde besterengarrien kasuan (etendako jarduerenak barne), honako hauek zehaztu beharko dira:
  - a) Ondare-elementuen deskribapen xehatua, beren zenbatekoa eta sailkapena eragin duten egoerak zehaztuta.
  - b) Galera eta irabazien kontuan edo ondare bateratu garbiaren aldaketen egoeran aitortutako emaitza, elementu garrantzitsuen arabera.
  - c) Ekitaldian aurrez aurkeztutako zenbatekoen gainean egiten diren doikuntzak, ezohiko jarduerekin edo salmentarako mantendutako elementuen talde besterengarriekin lotuta daudenak eta zuzenean besterentzearekin edo aurreko ekitaldi batean beste bide batez eskuratzearekin lotuta daudenak. Hala badagokio, besterentzea gertatu ez izangatik sortutakoak.
5. Ezohiko aktibo bat edo salmentarako mantendutako elementuen talde besterengarri bat sailkatzeko baldintzak ekitaldia amaitu eta ondoren baina urteko kontuak aurkeztu aurretik betetzen direnean, entitateak ez ditu urteko kontuetan salmentarako mantendutakoak bezala izendatuko. Edonola ere, horiekin lotuta, aurreko atalaren a) letran eskatutako informazioa emango da.
6. Elementuen talde besterengarriak eskuratze unean salmentarako mantendutakoa bezala izendatzeko baldintzak betetzen dituen mendeko sozietate bat denean, sozietateak elementu-taldean integratutako aktibo eta pasibo mota nagusien gaineko informazioa emateko betebeharra izango du.

## **27. ITXIERAREN OSTEKO GERTAKARIAK**

Honako hauen berri emango da:

1. Ekitaldia amaitzen den datan existitzen ziren eta kontuan hartu ez ziren egoerak adierazten dituzten ondorengo gertaerak, beren izaera, urteko kontu bateratuetan jasotako zifretan eginiko doikuntzak, eta memorian jasotako informazioa aldatzeko beharra erakusten duten gertaerak.
2. Ekitaldiaren amaieran existitzen ez ziren baldintzak erakusten dituzten eta garrantzitsuak diren ondorengo gertaerak; eman ezean urteko kontuen erabiltzaileen balioespen-gaitasunari eragin diezaiokeen informazioa. Batik bat, ondorengo gertaera deskribatu eta

bere efektuak balioetsiko dira. Aipatutako gertaeraren efektuak balioestea posible izan ezean, berariazko adierazpen bat gaineratuko da, ezintasuna eragiten duten arrazoiak eta baldintzak xehatzeko.

3. Urteko kontuak itxi ostean gertatutako gertaerak eta funtzionamenduan dagoen enpresa-printzipioaren aplikazioari eragiten dioten gertaerak. Honako hauen berri emango da:
  - a) Ondorengo gertaeraren deskribapena eta bere izaera (funtzionamenduan dagoen enpresa-printzipioaren aplikazioa zalantzan jartzen duen faktorea).
  - b) Ondorengo gertaerak enpresaren egoeran eragin dezakeen inpaktua.
  - c) Ondorengo gertaerarekin lotutako faktore arintzaileak.

## 28. ERAGIKETAK LOTUTAKO PARTEEKIN

1. Baterakuntza-prozesuan beren efektua baliogabetu ez den parteekin egindako eragiketen gaineko informazioa. Arau hauen 83. artikulua arabera, honako informazio hau emango da:
  - a) Entitate nagusia.
  - b) Kontabilitate Plan Orokorreko urteko kontuak lantzeko 13. arauan (Taldekako enpresak, taldeaniztunak eta elkartuak) ezarritako arauen arabera zehaztutako taldeko sozietateak.
  - c) Entitate partaide den baterako negozioak.
  - d) Sozietate elkartuak.
  - e) Taldearen gainean baterako kontrola edo eragin garrantzitsua duten enpresak.
  - f) Taldeko sozietateetako edo entitate nagusiko zuzendaritzarako ezinbesteko pertsonala.
  - g) Lotutako beste parte batzuk.
2. Lotutako parteekin egindako eragiketak ulertzeko eta horiek finantza-egoeretan izandako efektuak ulertzeko nahikoa informazioa emango da, eta honako hauek zehaztuko dira:
  - a) Lotutako eragiketak egin diren pertsona edo enpresen identifikazioa, inplikaturako parte bakoitzarekiko harremana zehaztuta.
  - b) Eragiketaren xehetasunak eta bere kuantifikazioa, erabilitako prezio-politika zehaztuta, eta enpresak loturarik ez duen parteekin egindako eragiketa analogoekiko duen harremana adierazita. Loturarik ez duen parteekin egindako eragiketa analogorik egon ezean, eragiketaren kuantifikazioa zehazteko erabilitako irizpide eta metodoak adieraziko dira.
  - c) Eragiketak taldean eragindako mozkin edo galera, eta parte loturadunak eragiketan bere gain hartutako funtzio eta arriskuen deskribapena.
  - d) Ordaintzeke dauden saldoen zenbatekoa, nola aktiboei, hala pasiboei dagokiena. Likidaziorako ezarritako kontraprestazioaren izaera, aktibo eta pasiboak finantza-tresnen arabera taldekatuta (balantze bateratuan agertzen den egiturarekin), eta emandako eta jasotako bermeak.
  - e) Kobratzeke dauden aurreko saldoekin lotuta, kobrantza zalantzarria duten zorreatatik balioztapen-zuzenketak.
  - f) Kobraezinak diren lotutako parteen zorren edo kobrantza zalantzarria duten zorren ondorioz aitortutako gastuak.
3. Edonola ere, parteekin egindako eragiketa moten berri emango da, betiere, baterakuntza-prozesuan beren efektuak baliogabetu ez badira:
  - a) Aktibo arrunten eta ez arrunten salmenta eta erosketak.
  - b) Zerbitzuen prestazioa eta jasotzea.
  - c) Finantza-errentamenduen kontratuak.
  - d) Ikerketa- eta garapen-transferentziak.
  - e) Lizenzien gaineko akordioak.
  - f) Finantzaketa-akordioak, maileguak eta kapital-ekarpenak barne (nola eskudirutan, hala jenerotan).

Ondare-tresnak eskuratzeko eta besterentzeko eragiketetan, kopurua, balio nominala, batez besteko prezioa eta eragiketen emaitza zehaztuko da. Eskuratzuz gero, aurreikusitako xedea adieraziko da.

- g) Ordaindutako eta kargatutako interesak, eta ez ordaindutako edo kobratutako baina sortutako interesak.
  - h) Dibidenduak eta banatutako beste mozkin batzuk.
  - i) Bermeak eta abalak.
  - j) Ordainketa eta kalte-ordainak.
  - k) Pentsio-planetarako eta bizitza-aseguruetarako eginiko ekarpenak.
  - l) Finantza-tresna propioekin konpentsatzeko prestazioak.
  - m) Erosteke edo saltzeko aukeratarako konpromiso finkoak edo taldearen eta lotutako parte baten arten baliabideak edo obligazioak besterentzeko beste tresna batzuk.
  - n) Hainbat partek erabiliko dituzten ondasun eta zerbitzuen ekoizpenarekin lotuta, kostuak banatzeko akordioak.
  - o) Altxortegia kudeatzeko akordioak.
  - p) Zorrek barkatzeko eta preskribatzeko akordioak.
4. Aurreko informazioa antzeko izaera duten partidetan ere aurkeztu ahalko da, informazio osagarri gisa. Edonola ere, kopuruagatik edo urteko kontu bateratuak ulertzeko garrantziagatik garrantzitsuak izan daitezkeen eragiketekin lotutako banakako informazioa emango da.
5. Ez da beharrezkoa izango ohiko trafikoari dagozkion eta merkatu-baldintza normaletan egiten diren eragiketen, garrantzi kuantitatibo gutxi duten eragiketen eta ondarearen, finantza-egoeraren eta taldearen emaitzen irudi zehatza adierazteko garrantzirik ez duten eragiketen gaineko informazioa ematea.
6. Hala ere, ekitaldian zuzendaritzako kideek eta sozietate nagusiko administrazio-organotako kideek sortutako soldata, dieta eta ordainketak adierazi beharko dira. Era berean, administrazio-organoko eta zuzendaritzako kide ohien eta egungo kideen pentsio gisa, edo bizitza-aseguruen hobarien ordainketa bezala hartutako obligazioen berri emango da.
- Horrez gain, uzteengatiko eta ondare-tresnenetan oinarritutako ordainketengatiko kalte-ordainei buruzko informazioa emango da. Administrazio-organotako kideak pertsona juridikoak direnean, aurreko eskakizunek horiek ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoei egingo diete erreferentzia. Informazio horiek orokorrean eman ahalko dira, ordainsarien arabera, zuzendaritzako kideei dagozkienak eta administrazio-organoko kideei dagozkienak bereizita.
- Horrez gain, sozietate nagusiko zuzendaritzako kideei eta administrazio-organotako kideei edozein taldeko edozein sozietateetarako emandako aurrerakin eta kredituen zenbatekoak adieraziko dira, eta interes-motak, ezaugarriak, aldiaren behin itzulitako zenbatekoak eta beren kontura eta berme gisa bere gain hartutako obligazioak zehaztuko dira. Administrazio-organotako kideak pertsona juridikoak direnean, aurreko eskakizunek horiek ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoei egingo diete erreferentzia. Informazio horiek orokorrean eman ahalko dira, kategorien arabera, zuzendaritzako kideei dagozkienak eta administrazio-organoko kideei dagozkienak bereizita.
- Era berean, sozietate nagusiko administrazio-organotako eta zuzendaritzako kideei sozietate taldeaniztun eta elkartuetarako emandako aurrerakin eta kredituak zehaztuko dira.
7. Kapital-sozietatearen formarekin antolatzen diren enpresen kasuan, sozietate nagusiaren administratzaileek edo horiekin lotura duten pertsonak dituzten interes-gatazken berri emango da, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 229. artikuluan zehazten diren terminoetan.

## 29. BESTE INFORMAZIO BATZUK

Honako hauen gaineko informazioa emango da:

1. Baterakuntzan integratutako sozietateen ekitaldian erabilitako pertsona-kopurua, kategorien arabera banatuta. Baterakuntzan integratutako sozietateetako langileen banaketa, sexuen arabera, eta zuzendaritza-kideen eta kontseilarien kategoria eta mailen kopurua zehatuta. Horrez gain, integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen den sozietate aldeaniztunetan erabilitako batez besteko pertsona-kopurua adieraziko da.
2. Baterakuntzan integratutako sozietateek ekitaldian erabilitako eta %33ko ezintasuna (edo tokiko baliokidea) edo handiago duten pertsonen kopurua, kategorien arabera. Horrez gain, integrazio proportzionalaren metodoa aplikatzen den sozietate aldeaniztunetan erabilitako batez besteko pertsona-kopurua adieraziko da.
3. Galera eta irabazien kontu bateratuan bereizita agertu ezean, ekitaldiari dagozkion personal-gastuak.
4. Kontuen auditoriei eta baterakuntzan integratutako sozietateen kontu bateratuetako eta banakako kontuetako auditoreek eskainitako beste zerbitzu batzuei dagozkien zenbatekoak. Batik bat, beste egiaztapen-zerbitzu batzuei dagozkien kargatutako

ordainsariak eta aholkularitza fiskalengatik kargatutako ordainsariak xehatuko dira. Informazioaren banakapen berdina egingo da talde berdineko enpresetako kontu-auditorearen edo kontrol, jabetza komun edo kudeaketagatik beste edozein enpresarekin lotutako auditorearen ordainsarietan.

5. Balantze bateratuan agertzen ez diren eta memoriaren beste oharren batean jaso ez diren akordioen izaera eta negozio-helburua, eta finantza-inpaktua. Betiere, informazio hori garrantzitsua bada eta baterakuntzan integratutako sozietateen finantza-egoera ulertzen laguntzen badute.

### 30. INFORMAZIO SEGMENTATUA

Honako hauen gaineko informazioa emango da:

- Segmentuen informazioa zehazteko eta eskaintzeko erabilitako esleipen- eta izendapen-irizpideak.
- Segmentuen arteko transferentzia-prezioak zehazteko erabilitako irizpidea.
- Lekuen arabera egindako salmentak, gutxienez taldeak Espainian, Europar Batasunean eta munduan egindakoak xehatuta.
- Bezeroei egindako salmenten eta ekitaldian negozio-zifra garbiaren %10 edo gehiago fakturatu zaien kanpo-bezeroen zenbatekoen banakapena.

Horrekin batera, banakapenari eta kontziliazioari dagokion informazioa emango da:

- a) Kanpoko bezeroei egindako salmenten zenbatekoa, segmentu artekoak, hornikuntzak, langile-gastuak, ibilgetuaren amortizazioa, narriaduragatiko eta horniduren aldaketagatiko galerak eta atzera itzulketak,, ohiko partidei eta ezohiko partidei dagozkienak eta ustiapen-emaitzak bereizita. Administrazio-kontseiluak segmentuaren kudeaketarako erabili ahala, finantza-irabazien eta -gastuen banakapenak gaineratuko dira.
- b) Etendako eragiketen emaitzak eta zergen aurreko emaitzak.
- c) Segmentuak erabilitako aktibo eta pasiboak.
- d) Eragiketa-jardueretatik sortutako eskudiruaren fluxu garbiak, inbertsio-jardueren fluxu garbiak eta finantza-jardueren fluxu garbiak.
- e) Aktibo ibilgetuetako inbertsio-zifra, ukiezinak, materialak, ondasun higiezinak inbertsioak eta finantza-inbertsioak kontuan hartuta.

Informazio hori segmentuen arabera emango da, honako koadro honetan:

#### SEGMENTATUTAKO FINANTZA-EGOERAK

KONZEPITUAK	SEGMENTUAK					GUZTIRA
	1	2	3	...	N	
Negozio-zifraren zenbateko garbia - Kanpoko bezeroak - Segmentuen artekoak Hornikuntzak Langile-gastuak Ibilgetuaren amortizazioa Narriaduragatiko galera eta atzera itzulketak						
USTIAPENAREN EMAITZA						
Finantza-sarrerak Finantza-gastuak						
ETENDAKO ERAGIKETEN EMAITZA						
ZERGEN AURREKO EMAITZA						
Segmentuaren aktiboak Segmentuaren pasiboak						
Jardueren eskudiruaren fluxu garbiak - Eragiketa - Inbertsioa - Finantzaketa						
Ekitaldian eskuratutako ezohiko aktiboak						

**31. EKITALDIAN ZEHAR IZANDAKO HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN INGURUKO INFORMAZIOA. «INFORMATZEKO BEHARRA», 15/2010 LEGEAREN, UZTAILAREN 5EKOAREN, HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea.
- Ordaindutako eragiketen ratioa.
- Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa.
- Burututako ordainketen guztirakoa.
- Egin gabe dauden ordainketen guztirakoa.

Honako koadro honetan aurkeztu beharko da informazioa:

	N (EGUNGO EKITALDIA)	N – 1 (AURREKO EKITALDIA)
	EGUNAK	EGUNAK
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea		
Ordaindutako eragiketen ratioa		
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa		
	ZENBATEKOA (EUROTAN)	ZENBATEKOA (EUROTAN)
Burututako ordainketen guztirakoa		
Egin gabe dauden ordainketen guztirakoa		

Halaber, sozietateak egokitzen jotzen duen beste edozein informazio emango da, erakundearen iritziz hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen kalkuluan eskuratutako emaitza distortsiona lezakeen edozein egoera argitzeko xedearekin.

Bateratutako kontuen informazioak taldeko hornitzaileei erreferentzia egingo die, informazioa ematen duen erakunde gisa, mendeko enpresen, eta dagokionean, enpresa taldeaniztunen, elkarrekiko kreditu eta zordunketak kenduta, aplikagarriak diren baterakuntzako arauetan xedatutakoaren arabera. Taulak bateragarriak diren multzoan sartutako Espainiako erakundeei dagokien informazioa soilik jasoko du.

Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Instituturen (ICAC) 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpena, merkataritza-eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruz urteko kontuen txostenean sartu beharreko informazioari buruzkoa, aplikatuko den lehen ekitaldian, ez da aurkeztuko betebeharrak berri honi dagokion konparaziozko informaziorik, efektu hauetarako esklusiboki urteko kontuak hasierako kontu gisa joko direlarik uniformetasun-printzipioari eta konparagarritasun-betebeharrari dagokionez.